



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2024/10/28an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2024/12/27an

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. EGITATE EZARGARRIA

3. artikulua.-

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzten du egitate ezargarría, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimentua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.

c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.

5. artikulua.-

Tasak ordaintzera behartuta daude:

a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. artikulua.-

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua-

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA

8. artikulua.-

Oinarri ezargarrria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua-

Zerga kuota tarifa bat, espresuki erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua-

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.-

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak ordainarazpen bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urraketak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere Eranskina 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

XI. ERANSKINA

A epigrafea: Zabor bilketa eta ezeztapen zerbitzua.

Debagoieneko Mankomunitateak proposatutako ordenantzan oinarrituta, hau da zerbitzu hau arautzen duen ordenantza osagarria:

HIRI HONDAKINEN BILKETA, GARRAIO ETA KUDEAKETA ZERBITZUAREN TASAK

1. artikulua. Lege-oinarria.

Apirilaren 21eko 10/98 Legeak -Hondakinena-, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak -Tokiko Araubidearen Oinarriena- eta aplikagarria den beste araudian ezarritakoaren arabera, Tokiko Erakundearen ardura da hiri hondakin eta antzekoen bilketa, garraio eta kudeaketa zerbitzua ematea.

Udal honek, aipaturiko zerbitzua Debagoieneko Mankomunitatearen bitartez ematen du.

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak -Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen- 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, Udal honek jarraituko du zerbitzu honi dagokion tasa ordainarazten.

2. artikulua. Definizioak.

Hiri Hondakin eta antzekoak: apirilaren 21eko 10/98 Legeak -Hondakinena- finkatzen duen definizioa.

Bilketa puntua: hiri hondakinak biltzeko finkatutako puntua.

3. artikulua. Zerbitzuaren erabilera.

Mankomunitatearen zerbitzua, indarrean dauden Legeak, Erregelamenduak eta Arauak errespetatuz erabiliko da.

4. artikulua. Egitate zergagarria.

Hiri hondakinak bildu, garraiatu eta kudeatzeko zerbitzua ematea da.

5. artikulua. Zerga ordaindu beharra.

Derrigorrezkoa eta orokorra den zerbitzu hau ezartzeak sortzen du. Zerbitzuaz etxebizitzaren eta merkataritza, industria eta zerbitzu-jardueren titularrak baliatzen direla ulertzen da, eta hau ordaindu beharretik ez da pertsona fisiko edo juridikorik salbuetsita geratuko.

6. artikulua. Subjektu pasiboak.

Etxebizitzaren baten -bertan norbait bizi edo ez- edo merkataritza, industri eta zerbitzu-jarduerak egiteko, edozein titulurengatik, lokalen baten jabe edo okupatzaile diren pertsona fisiko eta juridikoak harrapatzen ditu tasa honek.

Ez dira subjektu pasibotzat hartuko:

Ibilgailuen garajeen titularrak, horietan ez bada irabazi-asmoko jarduerarik egiten.

Etxebizitzarekin zerikusirik ez duten, edozein motatako jarduera gauzatu daitekeen lokal eta etxabeak, jarduera hori ematen ez den bitartean.

Aurri-deklarazioa duten eraikinen edo, aurri-deklaraziorik gabe ere, objetiboki beraietan inor bizitzeko moduan ez dauden eraikinen jabeak.

Udal ongintzaren erroldan barne harturik dauden zergadunak.

Udal ongintzak guztiz mantentzen dituen asiloak eta gainerako antzeko zentroak, inolako dirulaguntzarik ez dutenak.

Subjektu pasiboa epealdiaren lehenengo egunean etxe edo lokalaren jabea edo jabe-komunitatea dena izango da. Maizterrak jabearen baimena beharko du hiri hondakin bilketa zerbitzuan bera zergaduna izatea nahi badu. Maizterrak jabeak sinatutako alokairu kontratua aurkeztean baimena emantzat joko da.

7. artikulua. Zergadunen sailkapena.

Tasa hau aplikatzeko, ondoren zehaztuko diren kategorია, talde eta azpitaldeetan sailkatuko dira zergadunak.

KATEGORIA 1. Etxebizitza partikularrak	Azpitaldea
Taldea 10. Etxebizitza partikularrak	
Etxebizitza partikularrak	101
KATEGORIA 2. Biltegiak eta komertzioak	
Taldea 20. Biltegiak oro har	
Biltegiak oro har	200
Olio-biltegiak	201
Edari-biltegiak	202
Koloni biltegiak	203
Pentsu-biltegiak	204
Paper eta pintura-biltegiak	205
Industri produktuen biltegiak	206
Zur eta egur-biltegiak	207

Burdin biltegiak	208
Taldea 21. Jantzi-dendak	
Boutique eta jantzigintza	210
Artile dendak	211
Kinkila dendak (mertzeria)	212
Moda dendak	213
Ehun dendak	214
Tindategiak eta ikuztegiak	215
Zapata eta oinetako-dendak	216
Euritako, eguzkitako eta kapela dendak	217
Taldeak 22/23. Luxuzko gai eta apaingarrien dendak	
Arma dendak eta Ehiza eta Arrantzarakoak	220
Kirol dendak	221
Drogeriak	222
Bitxi dendak	223
Jostailu dendak	224
Liburu dendak	225
Ile apaindegiak eta edertze-aretoak	226
Lurrindegiak	227
Opari dendak	228
Erloju dendak	229
Taldea 24. Etxea egokitzeko artikuluen dendak	
Elektrizitate-dendak	240
Elektratresna-dendak	241
Burdindegia eta brikolaje dendak	242
Altzari-dendak	243
Paper eta pintura-dendak	244
Saneamendu-gaien dendak	245
Taldea 25. Kontsumo-gaien dendak	
Ikaztegiak	250
Estankoak	251
Farmaziak	252
Okindegiak	253
Egunkari eta aldizkari-saltokiak	254
Kiniela-saltokiak	255
Taldeak 26/27. Jarduera Profesionaletarako lokalak	
Abokatuak	260
Arkitektoak eta azterlan-bulegoak	261
Haginlariak	262
Farmaziak	263
Argazki dendak	264
Gestoriak eta autoeskolak	265
Edertze institutuak	266
Inprentak	267
Medikuak	268
Notarioen bulegoak	269
Sindikatuak bulego eta zentralak	270
Taldea 28. Zerbitzuetarako lokalak	
Eskola, ikastetxe, ikastola, haurtzaindegi eta gainerako irakaskuntza lokalak	280
Elizak, kaperak, kulturako lekuak, komentuak	281
Herri-eraikinak: Udaletxeak, Mankomunitatea, Probintzia, Eusko Jaurlaritza, azokak, hiltegiak	282
Liburutegiak, kultur aretoak, erakustokiak, kirol-elkarteak	283

Polikiroldegiak, igerilekuak, kirol guneak, futbol-zelaiak, zezen plazak	284
Jubilatu Elkarateak, Zaharren egoitzak	285
KATEGORIA 3. Ostalaritza, elikadura eta zerbitzuak.	
Taldea 30/31. Elikadura	
Hegaztiak eta arrautzak	300
Karameluak	301
Harategiak	302
Kolonialak	303
Gozodendak	304
Ekonomatoak	305
Frutategiak	306
Gozotegiak	307
Arrandegiak	308
Supermerkatuak	309
Janari dendak	310
Esne dendak	311
Taldea 32. Ostatuak	
Ostatuak	320
Fondak	321
Hostalak	322
Hotelak	323
Pentsioak	324
Erresidentziak	325
Taldea 33. Edariak	
Barrak	330
Bodegak	331
Kafetegiak	332
Klubak	333
Pubak	334
Snak-Barrak	335
Tabernak	336
Ardandegiak	337
Taldea 34. Jatorduak	
Askaldegiak	340
Jatetxeak, Self-service-ak	341
Elkarte gastronomikoak	342
Taldea 35. Zerbitzuak	
Bidai agentziak	350
Bankuak	351
Aurrezki-etxeak	352
Aseguru-etxeak	353
Posta, telefonoa, epaitegia, polizia, Ertzaina	354
KATEGORIA 4. Industria jarduerak eta Zerbitzuak	
Taldea 40. Produkzio-industriak	
Aroztegiak, zerrategiak, altzarigintza	400
Errementaldegiak, galdarategiak	401
Soldadura	402
Sopletistak	403
Lantegiak eta industriak oro har	404
Trokeleriak, moldeak eta matrizeak	405
Automobil-konponketak	406
Iturginak	407
Taldea 41. Aisialdi-industriak	

Zine-aretoak	410
Festa-aretoak	411
Jolas aretoak	412
Antzokiak	413
Taldea 42. Zerbitzuak	
Garajeak negozio gisa	420
Ibilgailu-konponketa	421
Industri hornikuntzak	422
Garraio agentziak	423
Garbitasun enpresak	424
KATEGORIA 5. Aurretik itundutako zerbitzuak	
Taldea 50. Aurretik itundutako zerbitzuak	
Aurretik itundutako zerbitzuak	500
Klinikak	501
Ospitaleak	502
Anbulatorioak	503

8. artikulua. Tarifak, ekibalentziak eta irizpideak.

Zergadun bakoitzak, bere kategorian, dagokion tarifaren tasa ordaindu behar du. Tarifa bakoitzeko tasak 1.1 tarifarekiko hurrengo ekibalentzia gordetzen du.

Kategoria	Tarifa	Langile kopurua	Ekibalentziak	Tasa 2025 (€/hiruhilero)
1. Etxebizitzak	1.0 Auto/auzo konpost egilea	-	0,75	31,55
	1.1 Arrunta	-	1,00	42,06
	1.2 Organiko kudeatzaile guneak	-	0,50	21,03
	1.3 Ekarpn guneko landa-guneko erabiltzailea	-	0,75	31,55
	1.4 Ekarpn guneko erabiltzaile konpostatzailea	-	0,50	21,03
2. Biltegiak eta komertzioak	2.1	≤2	3,18	133,75
	2.2	≤5	5,30	222,92
	2.3	≤15	10,60	445,84
	2.4	>15	15,90	668,75
3. Ostalaritza, elikadura eta zerbitzuak	3.1	≤2	4,24	178,33
	3.2	≤5	7,95	334,38

	3.3	≤15	13,25	557,29
	3.4	>15	18,55	780,21
4. Industria jarduerak eta zerbitzuak	4.0	≤2	3,18	133,75
	4.1	≤5	8,48	356,67
	4.2	≤15	15,90	668,75
	4.3	≤50	21,20	891,67
	4.4	≤100	26,50	1.114,59
	4.5	≤500	31,80	1.337,51
	4.6	>500	37,10	1.560,43
5. Aurretik itundutako zerbitzuak	5.1	-	21,20	891,67

Tasa hauek aplikatzeko ondorengo irizpideak izango dira kontuan:

Etxebizitzak (1 kategoria). Bost tarifatan banatzen dira:

1.0 Auto edo auzo konposta egiten duen lurzoru urbano edo urbanizagarrian kokatutako etxebizitza

1.1 Arrunta. Tarifa honetan sartzen dira lurzoru urbano edo urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak

1.2 Organiko kudeatzaile guneak: Tarifa honetan sartzen dira Angiozar auzoko lurzoru urbano edo urbanizagarrian kokatuta egonik organiko kudeatzaileak diren etxebizitzak.

1.3 Ekarpen guneko landaguneko erabiltzailea: Tarifa honetan sartzen dira lurzoru ez urbanizagarrian kokatuta egonik, etxetik gertueneko bilketa lekura **oinez** 150 m baino gehiago daukatenak. Hori bai, bilketa leku baten inguruko erabiltzaileek berariaz eskatu badute bilketa lekua urruntzea ez zaie landa guneko erabiltzaile izaera aitortuko.

1.4 Ekarpen guneko erabiltzaile konpostatzailea: Tarifa honetan sartzen dira konposta egiten duten lurzoru ez urbanizagarrian kokatuta egonik, etxetik gertueneko bilketa lekura **oinez** 150 m baino gehiago daukatenak. Hori bai, bilketa leku baten inguruko erabiltzaileek berariaz eskatu badute bilketa lekua urruntzea ez zaie landa guneko erabiltzaile izaera aitortuko.

Hiri hondakin bilketaren maiztasuna edo asteko bilketa kopuruak ez du zerikusirik izango tasa gisara erabiltzaileek ordaindu beharko duten zenbatekoarekin.

Eraikina edo etxebizitza hutsik egoteak ez du bere jabea dagokion tasa ordaintzetik salbuesten.

Jolas elkarreak. Ondorengo parekidetasuna izango dute:

≤ 50 bazkide, 3.1 tarifaren parekide izango da.

> 50 bazkide, 3.2 tarifaren parekide izango da.

Jarduera profesionalak edo merkataritza eta zerbitzuen ingurukoak, aldi berean bizileku diren etxebizitza edo lokaletan egiten direnean: ile-apaindegia, kontsultategiak, etab. Alde batetik etxebizitza hartuko da kontuan, eta bestetik bertan burutzen den jarduera, dagozkien tarifak finkatzeko, zeren eta jarduera profesionalak nahiz etxebizitzak, bakoitzak bere hondakinak sor baititzake eta bakoitzari bere tasa aplikatu behar zaio.

Biltegitarako lokalak. Zergaduntzat hartuko da industri edo merkataritza-jardueraren bat biltegian bertan edota bertatik egiten duena; baina ez da zergaduntzat hartuko lokal hori jardueraren baterako beharrezko materialak gordetzeko bakarrik erabiltzen duena, jarduera bera ez biltegian baizik eta

beste lokal edo lekuren batean egiten badu udalerrri berean, eta zergadunen erroldan sartua baldin badago.

Kultu-lekuak eta komentuak. 2.1. tarifyan sailkatuko dira.

Eskolak, ikastolak, akademiak, ikastetxeak, haurtzaindegiak, etab. 2. kategorian sailkatuko dira, eta dagokien tarifa aplikatuko zaie irakasle-kopuruaren arabera.

Zahar eta ikasleen egoitzak 2. kategorian sailkatuko dira, ohe-kopuruaren araberrako tarifa aplikatuz.

9. artikulua. Errolda.

Hiruhilero Errolda bat egingo da; bertan zergadunak agertuko dira, baita Ordenantza honen aplikazioz likidatuko zaizkien kuotak ere. Errolda hori ezagutarazi eta erreklamazioak jasotzeko, jendaurrean jarriko da 15 egunez udaletxeko iragarki-taulan, eta aldi berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara, eta ediktu bidez zabalduko da herrian ohikoa den eran.

Jendaurrean erakusteko epea bukatu ondoren, aurkezturiko erreklamazioak ebatziko ditu Udalak, eta behin-betiko onetsiko du Errolda, kobrantza-agirietarako oinarritzat hartuko delarik.

10. artikulua. Bajak.

Bajak, beranduenik ere, kobrantza-aldi baten azken lanegunean jakinarazi behar dira, hurrengo kobrantza-aldian eragina izaten hasteko. Baldintza hau betetzen ez dutenak beharturik daude zerga ordaintzera.

Merkataritza, ostalaritza, industria eta zerbitzuetan baja data, zergadunak Udalean aktibitate baja adierazten duen eguna izango da.

11. artikulua. Altak.

Ekitaldi barruan egindako altek, zerga ordaindu beharra sortzen den egunetik izango dute eragina. Administrazioak erroldako altari dagokion likidazioa jakinaraziko die subjektu pasiboari, ondorengo puntuak zehaztuz:

Likidazioaren osagai funtsezkoenak.

Horren aurka jotzeko erabil daitezkeen bide nagusiak, inpugnazioak zein epetan eta zein erakunderen aurrean jar daitezkeen adieraziz.

Zerga-zorra zein lekutan, epetan eta eratan ordaindu behar den.

12. artikulua. Sortzapena.

Tasa hiruhilero kobratuko da.

13. artikulua. Jakinarazpenak

Zergadunaren betebeharra izango da Udalari jakinaraztea tasa honen erroldan egin nahi dituen altak, bajak eta tasa kalkulatzeko elementuen aldaketak.

Kudeaketaren inguruan, Ordenantzaren J epigrafean (Ur-zerbitzua) arautzen den bezala arautuko da epigrafe hau ere.

%95eko hobaria izango dute lehen hiru urteetan zehar (hau da, lehenengo hamabi ordain agirietan) eraikin beheko lokaletan kokatzen diren eta katastroan lokal komertzial izaera duten merkataritza jarduera ekonomiko berriek, baldin eta udalerriko jarduera ekonomikoen matrikulan 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea, apirilaren 20koa Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoan jasotzen den I. Eranskineko Lehen Sekzioko 6. Saileko epigrafe batean altan ematen badira lehen aldiz.

Hobaritik at geldituko dira:

-aipatutako epigrafeetako batean altan egonda ere, azken lau urteetako ekitaldi baten 1.000.000 eurotik gorako fakturazioa izan duten jarduerak, edota fakturazio kopuru hori izan duten enpresen taldekoak direnak.

-frankizia, multinazional, enpresa taldeak eta antzekoak, eta, orohar, ohiko egoitza fiskala udalerritik kanpo daukatenak.

-ostalaritzako jarduerak.

B epigrafea: Estolderia zerbitzua

Ondoko tarifa aplikatuko da estolderia publikoa erabiltzeagatik edota partikularrak zaindu eta ikuskatzeagatik:

Etxekoak: ur kontsumoa (m³) x 0,50 €/ m³

Besteak: ur kontsumoa (m³) x 0,97 €/ m³

Udal saretik urik ez dutenek 40 m³-ko ur-kontsumoari dagokion tasa izango dute.

Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak prestatutako Erreglamentua, Udalak ordaindu behar duen Azpiegiturak Finantziatzeko Kanona arautzen duenak, Ordenantza honen osagarri izango da.

C epigrafea: interesatuaren eskariz dokumentuak luzatzea.

	€
a.	
Konpentsazio eta birpartzelazio proiektuak	2.587,45
Hondamen-espeditenteak	517,55
Konpentsazio batzordearen aldeko desjabetzapen espeditentea	1.724,90
Hirigintza zedulak	149,85
Finken normalizazioa	575,15
b. Fotokopiak	
Ziurtatutako kopiak:	
A4	0,36
A3	0,75
DIN A 4 (bakoitzeko)	0,16
DIN A 4 (Gazte informazio zerbitzua ematen dutenek) (bakoitzeko)	0,05
DIN A 3 (bakoitzeko)	0,36
DIN A0 tamainakoak (bakoitzeko)	4,12
DIN A1 tamainakoak (bakoitzeko)	2,12
Paper orrian kopia (m ²)	4,12
Poliester orrian kopia (m ²)	12,31
Paper begetalean kopia (m ²)	7,83
c. Erreprografia zerbitzua.	
Dokumentu edo irudia eskaneatzea	1,24
Euskarri digitalean erreproduzitzea (bakoitzeko)	0,57

d. Hirigintza kontsultak (dokumentua luzatzen bada)	63,95
e. Digitalizatutako kartografiaren kopiak	
Kartografia osoa diskettean	397,35
Paperezko kopia (orri bakoitza)	21,63
Ploteatutako kopia (A-4)	16,23
Ploteatutako kopia (A-3)	21,63
Ploteatutako kopia (Ha)	322,24
f. Dokumentuen konpultsak	
30. kopia arte (6 lehenak dohain) (orriko)	0,31
31. kopiatik aurrera (orriko)	0,42
g. Telefax zerbitzua (orriko)	1,30

Herri onurarako helburua duten irabazi asmorik gabeko elkarteei artxiboko tasarik ez zaie kobratuko.

D epigrafea: Hileta zerbitzua

	<u>Euro</u>
a) Hilobiratze eskubideak:	
Panteoian edo berjan	65,90
Udal hilobi baten (10 urtez)	509,50
b) Panteoia edo berja izateagatik:	
Panteoia edo berja lagapenean jaso duenak, m ² /urteko	28,90
c) Lurraren kostea, panteoiak eraikitzeke, m²	397,92
d) Eskualdaketengatik:	
Lehenengo tarifa: Senar-emazte, guraso eta seme-alaben arteko oinordetza-eskualdaketak:	
a. Panteoia edo berja eta bere lurra, m ²	65,92
b. Lurra, panteoi edo berjarik gabe, m ²	65,92
Bigarren tarifa: Lagapena edo beste edozein kontratu mota:	
a. Panteoia edo berja eta bere lurra, m ²	131,45
b. Lurra, panteoi edo berjarik gabe, m ²	131,45
e) Gorpuzkiak lekualdatzeagatik:	

Kanposantuko leku batetik bestera	30,40
Herritik kanpo	90,60
f) Kolunbario baten emakida, gehienez ere 10 urterako:	193,60
Kolunbarioaren plaka argazkiarekin	127,95
g) Errautsak hilobietan lagatzeagatik	30,40
Errautsak kolunbario komunitarioan lagatzeagatik	17,25

Zerbitzu honen gaineko guztiak zerbitzua arautzen duen Ordenantzan jasota daude. Kolunbarioa erabiltzen hasi aurretik kitatu beharko da tasa hau, autolikidazio sistema jarraituta.

E epigrafea: Azokako zerbitzuak

	€/hiruhilero
1. tarifa: Postu fijoak (m ²)	14,14
2. tarifa: Baserritarren postuak (metro lineal)	13,85
3. tarifa: Behin-behineko saltzaileen postuak (metro lineal)	29,16
4. tarifa: Saltzaile berezien postuak (m ²)	31,13
	€/urteko
5. tarifa: Postu fijoen behin-behineko kontzesioak:	
17,75 m ² -ko postuak (urteko)	1.944,18
2 x 17,75 m ² -ko postuak (urteko)	3.781,70
17,75 m ² + 9,60 m ² -ko postuak (urteko)	2.872,40

F epigrafea: Hirigintza baimenak ematea; edo baimenaren ordezkizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu behar den kasuetan, kontrol jardueraren administrazioak egitea.

	€
6.000 € bitarteko aurrekontuak	Salbuetsiak
6.000 eta 18.000 bitarteko aurrekontuak	149,87
18.000 eta 300.000 bitarteko aurrekontuak	448,72
300.000 €tik gorako aurrekontuak	748,09
Legalizazio prozedurak eta exekuzio aginduak emateagatik	

18.000 € arteko aurrekontuak	224,75
18.000 eta 300.000 bitarteko aurrekontuak	673,16
300.000 €tik gorako aurrekontuak	1.122,19
Lurzatiak banandu eta elkartzeko baimenak	
Lurzoru urbanoa eta urbanizagarria (m ²)	0,20
Lurzoru ez urbanizagarria	
0-999 m ² artean (baimen bakoitzeko)	43,05
1.000-9.999 m ² artean (baimen bakoitzeko)	71,75
10.000-29.999 m ² artean (baimen bakoitzeko)	143,40
30.000-99.999 m ² artean (baimen bakoitzeko)	286,55
≥ 100.000 m ² (baimen bakoitzeko)	432,40
Lehen erabilpenerako edo okupaziorako baimenak	
Bost etxebizitza edota lokal arte, bakoitzeko	64,70
Bost etxebizitza edota lokaletik gora, hurrengoak	32,55
Industriak:	
500 m ² tik beherakoak	434,10
500 m ² tik gorako industriak	860,05

HOBARIAK ETA SALBUESPENAK

-a) Nekazal, abere eta baso ustiaketara bideratutako eraikinetan egiten diren obrak.

Baserriak eta nekazaritza jarduerak (ikuilu, biltegiak, etab,..) ondorengo hobariak izango dituzte:

a) %50eko hobaria, Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko datu ekonomikoetan Renta unitaria/Renta referencia ratioa %5a edo gehiago bada.

b)%90eko hobaria, Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko datu ekonomikoetan Renta unitaria/Renta referencia ratioa %10 edo gehiago bada.

Betiere, kasu bietan, obrak hasi baino 5 urte lehenagotik, gutxienez, baserrian erroldatuta egon beharko da ustiaketaren titularra.

Hobari fiskala baserriarraren jabegoko zatiari edo proportzioari emango zaio bakarrik.

Nekazal turismoei dagokionez, hobaria horrela arautuko da:

Eraikinean egin behar diren obrak, bai nekazal turismorako egokitzapen obrak eta baita etxebizitzarako egokitzapen obrak ere, obra proiektu bakarrean jaso beharko dira eta osotasun baten barne egongo dira biak.

Salbuespenak behin-behineko izaera izango du, eskuduntza duen administrazioak eraikin horren nekazal turismo izaera onartu arte. Obra amaitutakoan nekazal turismo izaera ez balu lortuko, salbuespena galduko luke eta zerga ordaindu beharko luke, dagozkion interesak barne.

-b) %80ko hobaria dute fatxada pintatzeko obrak eta pintatu aurretik egin beharko direnak (zarpeatu, lijatu eta abar). Era berean, %80ko hobaria dute leiho, balkoi eta pertsianen aldaketa edo konponketak, aldaketa edo konponketa bizilagun guztiek egiten dutenean. %80ko hobaria izango dute baita ere PERCH-k eskatuta lokal komertzialen fatxadetan egin beharreko obrek ere.

Hobaria %95ekoa izango da fatxadak konpontzen direnean eraikinen efizientzia energetikoa hobetzea lortzeko.

-c) 13/1996 Foru Arauaren arabera Foru Aldundiak egitasmo estrategiko bezala izendatutako proiektuek %95eko hobaria izango dute.

-d) Babestutako birgaitze obrek %90eko hobaria izango dute tasa honen kuotan, baldin eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa (mailegua edo/eta dirulaguntza) jasotzen bada. Hobaria izateko, udalean aurkezten den aurrekontuaren eta Eusko Jaurlaritzan aurkezten diren fakturen arteko aldea %20koa baino handiagoa ezingo da izan. Halaber, Udalean eta Eusko Jaurlaritzan obra berberak eta gremio berdinak deklaratu beharko dira hobaria izateko eta aurrekontuaren eta fakturen arteko %20ko muga kontutan ez izateko, tasaren autolikidazio osagarriak Eusko Jaurlaritzaren ebazpenaren aurrekoak izan behar dute.

Hobaria soilik pertsona fisikoentzat da.

-e) Monumentu historiko-artistikoetan burutzen diren obra eta instalazioek %90eko hobaria izango dute tasaren kuotan, ondasuna kalifikatuta badago. Egitamu Orokorreko katalogoan dauden ondasunen inguruan, hobari hauek izango dituzte kategoria hauetakoek:

Kategoria	Babes maila	Hobaria
BA-1-A/1	Gorena	%50
BA-1-A/1	Ertaina	%50
BA-3		%50
BA-1-A/2		%90
BA-1-B		%90
BA-2		%90

-f) Suteek eta hondamendiek sortutako kalteak konpontzeko obrek %95eko hobaria izango dute.

-g) %95eko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri guztien aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira autokontsumoari begira. Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa edo energia sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutakoak izatea. Halaber, hobaria soilik energia sistema horiek jartzeko obra zatiak izango du eta energia sistema horiek jartzeagatik beste obra guztiak ez du hobaririk izango.

-h) %50eko hobaria, babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza berriko obrak direnean. Etxebizitza tasatuen promozioek ez dute hobaririk izango.

-i) %90eko hobaria, ezintasun edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen mugikortasunarekin erlazionatutako oztopo arkitektonikoak ezabatzeko egiten dituzten obra lanetan. Hobaria izango du,

soilik, mugikortasuna oztopatzen duten traba arkitektonikoak kentzera bideratuta dauden obren aurrekontuaren zatiak, hobariaren kopurua gehienez ere 3.000 eurokoa izango da eta hobaria izateko ezingo da izan eraikuntza berriko obra.

Hobari hau aitortzeko irizpideak dira:

-%33ko ezintasuna + 7 puntu, gutxienez, mugikortasun-arazoetan edo 2006ko abenduaren 14ko 39/06 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta besteen beharrea dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak ezarritakoari jarraituz mendekotasun egoera aitortuta eduki eta 8 eta 9. ekintzetan, etxe barruko eta kanpoko mugikortasunean zailtasunak azaltzen dituen.

-Obrak egingo diren etxean errolatuta egotea.

-Obra bukaerako faktura aurkeztea.

-Obrak egingo diren etxearen jabea elbarritua izan behar da edo bere gurasoak edo bere ezkontidea, edo seme-alabak, edo bikotekidea.

-Aparteko egoera eta gertakariak banan-banan aztertuko dira.

Jabekideek atariko obrak egiten badituzte hirigintza oztopoak kentzeko, hobaria hauek izango dituzte:

-Irisgarritasun baldintza guztiak betetzen dituzten komunitateei %90eko hobaria.

-Praktikabilidadea besterik ez badute lortzen %75eko hobaria.

Lehenengo kasuan, komunitate guztiak %90eko hobaria izango du.

Bigarrenean, komunitateak %75eko hobaria eta elbarriak %90eko hobaria.

-j) Igogailu berriak jartzeko eta igogailua solairu guztietara heltzeko egiten diren obrei %95eko hobaria ematea; horretarako, baldintza hauek bete beharko dira:

-Bi obra motak izango dute hobaria: Igogailuen instalazio berriek eta igogailua solairu guztietara heltzeko egiten diren obrek.

-Ondasunek etxebizitza erabilera izan beharko dute.

-Ondasunek, gutxienez, behe oina gehi hiru pisuko altura izan beharko dute (00+3).

-Ondasunek, gutxienez, 10 urteko antzintasuna izan beharko dute.

-Hobariaren onuradunak, igogailurik izan ez eta berau jarriko duten eta igogailua izan arren solairu guztietara heltzen ez den eraikinen jabe komunitateak izango dira.

-k) %50eko hobaria Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren ondoren, harekin zuzeneko zerikusia duten obrak egin beharra dagoenean. ITE arautegiaren 8. artikulua arabera ITE ondoren, 5 maila desberdinetako obrak agindu daitezke, 5 esku-hartze mota jasotzen dira. Esku-hartze horiek egiteko obra baimena eskuratu beharko dute eta lanak amaitu ostean Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren zuzenketa ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

5 maila horietatik, 1., 2. eta 3. mailako obrek izango dute hobaria. Aipatutako maila horietako lanak bananduak eta banakatuak aurkeztu beharko dira.

-l) Alde zaharreko (kale hauetan: Bidekurutzeta, San Pedro, Komenio, Mizpildi, Goenkale, Artekale, Arruriaga, Barrenkalea) lokal komertzialetan jarduera ekonomikoren bat burutzen den lokaletan egin beharreko obrek %35eko hobaria izango dute.

-m) %75eko hobaria mugikortasunarekin erlazionatutako oztopo arkitektonikoak ezabatzeko egiten diren obretan. Hobaria izango du, soilik, mugikortasuna oztopatzen duten traba arkitektonikoak kentzera bideratuta dauden obren aurrekontuaren zatiak, hobariaren kopurua gehienez ere 3.000 eurokoa izango da eta hobaria izateko ezingo da izan eraikuntza berriko obra.

Hobari hau aitortzeko irizpideak dira:

-Obrak egingo diren lokalak erabilera publikokoak edo sarbide publikokoak izan behar dira.

-Obra bukaerako faktura aurkeztea.

-n) Egun dagoen industria sarearen pabiloi edo eraikinetan egiten diren obrentzako, betiere jarduera ekonomiko bat helburu duenean eta berritze edo egokitze obrak direnean soilik, %10eko hobari bat ezartzea enplegu iraupen mugagabeko eta berriak sortzen dutenentzat, urteko langile kopuruaren batz bestekoa kontuan izanda. 1 eta 5 langile artean dutenek bi urtera langile plantillan batz besteko %20ko langile berri izan behako dute. 6 langile edo gehiago dutenek bi urtera langile plantillan batz besteko %10eko langile berri izan beharko dute. Betiere, lan-jardun osoko langileak edo ekibalentziak hartuko dira kontutan. Bi urterako epemuga kontatuko da obra egin den eraikinaren obra bukaerako ziurtagiriaren datatik. Langile kopuruak alderatzeko, hasierako data izango da obra baimen eskaeraren eguna eta amaierakoa obra bukaerako ziurtagiriaren datatik bi urte ondorengo.

-o) PERCH eremuko eraikinetan egindako birgaitze osoko obrek %15eko hobaria izango dute.

-p) Zarata maparen garapeneko Ekintza planak zehaztutako eremuetan zarata murrizteko egiten diren obrek %35eko hobaria izango dute.

-q) Bioeraikuntza ereduak %100ean jarraitzen dituen edozein obrak %95eko hobaria izango du. Gaitasuna duen teknikariak ziurtatu beharko du bioeraikuntza irizpideak %100ean erabili direla obra horretan.

-r) Jarduera ekonomikoren bat burutzen den lokaletan, COVID-19ari aurre egiteko eta osasun egoerak hala behartuta lokalak egokitzeko beharrean aurkitzen badira, egokitzapen obra horiei %90eko hobaria ezartzea.

-s) PERCH eremuko eraikinetan, %95eko hobaria izango dute behe solairuko obrek, baldin eta obren helburua lokala indarrean dagoen araudira egokitzea bada. Hobari hau soilik izango da araudira egokitzeko egin beharreko obrentzat.

-t) PERCH eremuan etxebizitza erabilera duten finketan egiten diren obra guztiek %50eko hobaria izango dute baldin eta obraren kostea, zerga barik, 10.000 €tik gorakoa bada. Hobaria ez da aplikagarria izango obra berriko eta birgaitze osoko kasuetan.

-u) Arrazoi sozial eta enpleguak medio, %95eko hobaria katastroan lokal komertzial izaera duten ondasun higiezinetan jarduera ekonomiko berrien irekiera edo jarduera ekonomikoen titularitate aldaketa bat ahalbidetzeko burutzen diren obretan.

Hobaria aplikatzeko baldintza izango da, udalerriko jarduera ekonomikoen matrikulan 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea, Ekonomi jardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoan jasotzen den I. Eranskineko Lehen Sekzioko 6. Saileko epigrafe batean altan emanda egotea.

Hobaritik at geldituko dira:

-aipatutako epigrafeetako batean altan egonda ere, azken lau urteetako ekitaldi baten 1.000.000 eurotik gorako fakturazioa izan duten jarduerak, edota fakturazio kopuru hori izan duten enpresen taldekoak direnak.

-frankizia, multinazional, enpresa taldeak eta antzekoak, eta, orohar, ohiko egoitza fiskala udalerritik kanpo daukatenak.

Hobaria aplikatzeko beharrezkoa izango da Errenta Sailaren eta Hirigintza Sailaren aldeko txosten teknikoa.

-v) %90eko hobaria turismo elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko beharrezkoak diren eraikuntza, instalazio edo obren alde. Hobaria aplikatzeko, instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa izan behar dute.

Arau orokorrak:

- Hobariengatik itzulketak eta tasaren ordainketak jabetza portzentajearen arabera egindakoak direla ulertuko da, jabe komunitatearen kontrako erabakirik aurkeztu ezean behintzat.
- Debagoieneko Mankomunitateak %95eko hobaria izango du tasa honetan.
- Hobari desberdinak ez dira akumulatuko eta beti hobari altuena aplikatuko da.

Hobari edo salbuespen hauen onuradun izateko baldintzak, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergarentzako bere Ordenantza arautzaileak jasotzen dituen berberak izango dira.

G epigrafea: Establezimenduak irekitzeko lizentziak; edo kontroleko administrazio jarduerak egitea, lizentzia exijitzearen ordezkari adierazpen erantzulea edo aurre komunikazioa aurkezten duten kasuetan.

Tasari loturik dagoen jarduera behin-betiko martxan jartzea ulertuko da irekitzeko baimena.

	A taldeko jarduerak (€)	B taldeko jarduerak(€)
Merkataritza	598,65	855,55
Zerbitzuak eta garajeak	768,85	1.025,65
Industria eta ostalaritza	1.025,65	1.282,55
Instalazioen legalizazioa	0,00	598,65
(Aire egokitua, gas gordailuak...)		
Jardueren legalizazioa	598,65	

A taldeko jarduerak: Jarduera-lizentzia behar duten jarduera eta instalazio sailkatuak. (lehenengo IGOKA). Udal tramitazioaz gain, beste erakunderen baten baimena behar da (Diputazioa edo/eta Eusko Jaurlaritza)

B taldeko jarduerak: Jardueraren aurrekomunikazioa behar duten jarduera eta instalazio sailkatuak. Udal tramitazioa bakarrik burutu behar da.

Titularitate aldaketetan, jarduerak jarraitzen duenean eta aldaketarik ez dagoenean, ez da tasa kitatuko.

100 m²-tik gorako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduek eta solairuan eraikitako 500 m² baino gehiagoko industrialek %100eko igoera izango dute Tasa Orokorrearekiko.

Lokaletako obrengatik egindako lekualdaketak eta derrigorrezko botatzeak eragindakoak salbuesita egongo dira.

Salbuespenak:

1. Ondorengo hauek salbuesita egongo dira tasa ordaintzetik, baina ez dagokion baimena eskuratzetik:

a) Lokaletako obrak direla eta larrialdiko behin-behineko egoerak eraginda lekuz aldatu beharra dutenak, baldin eta dagokion baimena badute.

b) Derrigortutako botatze-lanek, erorketek, suteek eragindako lekualdaketek, eta agindu edo xedapen ofizialak betetzeko egin direla frogatzen direnek.

2. Aurreko puntuko a) idazatian aipatutako salbuespena aurretiko lokala egokitu edo zaharberritu ondoren irekitzea hartzen du bere barne, 8 hilabete baino gehiago pasatu ez badira.
3. Lehen puntuko b) idazatiari dagokionean, salbuespen horrek aurretiko lokala egokitu edo zaharberritu, edo aurreko lokalaren ordezkotik lokal berria ere barne ulertzen ditu, baldin eta titularrak aurreko lokala lagatzeagatik inolako kalteordainik jaso ez badu.
4. Bi salbuespenen kasuan, derrigorrezkoa izango da irekiko den lokal berriak zahararren azalera bera izatea eta jarduera bera burutzea.
5. Halaber, Debagoieneko Mankomunitatea tasa honen ordainketatik salbuetsita dago.

Hobariak:

1.- Kuotaren % 50eko hobaria izango dute toki ezegokian (nahiz eta baimendua edo toleratua izan) dauden lokal edo establezimenduak Udal Administrazioak egokitzat jotzen dituen tokietara eramaten direnean, lokal berriari ere lehengo jarduera bera garatzeko bada.

2. Ondoko hauek kuotaren % 80ko hobaria izango dute:

a) Senar-emazte eta aitzineko eta ondorengoaren arteko titular aldaketak.

b) Elkarrekin Ez Anonimoen izen sozialaren aldaketa, bazkideren baten heriotzagatik bada.

3.-%50eko hobaria norberaren inizatibaz eskatuz gero lehenagotik irekita dagoen jarduera erregulatzeko lizentzia. Hobaria aplikatuko litzateke 2414 / 1962 RAMINP Dekretua indarrean sartu aurretik martxan ziren jarduerari.

4.-Behin-behineko irekitze lizentziak. Jardueraren iraupena sei hilabetekoa bada gehienez ere, %50eko hobaria izango du.

5.- %35eko hobaria alde zaharreko (kale hauetan: Bidekurutzeta, San Pedro, Komenio, Mizpildi, Goenkale, Artekale, Arruriaga, Barrenkalea) lokal komertzialetan jarduera ekonomikoren bat burutzen dutenei.

6.- Arrazoi sozial eta enpleguak medio, %95eko hobaria katastroan lokal komertzial izaera duten ondasun higiezinetan jarduera ekonomiko berrien irekiera tasetan.

Hobaria aplikatzeko baldintza izango da, udalerriko jarduera ekonomikoen matrikulan 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea, apirilaren 20koa Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoan jasotzen den I. Eranskineko Lehen Sekzioko 6. Saileko epigrafe batean altan emanda egotea.

Hobaritik at geldituko dira:

-aipatutako epigrafeetako batean altan egonda ere, azken lau urteetako ekitaldi baten 1.000.000 eurotik gorako fakturazioa izan duten jarduerak, edota fakturazio kopuru hori izan duten enpresen taldekoak direnak.

-frankizia, multinazional, enpresa taldeak eta antzekoak, eta, orohar, ohiko egoitza fiskala udalerritik kanpo daukatenak..

Hobaria aplikatzeko beharrezkoa izango da Errenta Sailaren eta Hirigintza Sailaren aldeko txosten teknikoa.

H epigrafea: Autotaxien eta gainerako alokairu ibilgailuen eta autoeskoletako baimenak luzatzeko zerbitzuak

	€
--	---

Lehenengo epigrafea: Taxista lanetan jarduteko baimenak	
Baimenaren udal emakida bakoitzeko	1.748,80
Baimenen erabilera eta ustiapena, urtean	24,55
Lizentzia eskualdatzeko baimenagatik	2.339,25
Bigarren epigrafea: Txoferrik gabeko ibilgailuen alokairuko baimenak	
Baimenaren udal emakida bakoitzeko	256,20
Baimenen erabilera eta ustiapena, urtean	24,55
Hirugarren epigrafea: Baimendutako emakidadun ibilgailuen aldaketa	29,00

I epigrafea: Ibilgailuak ibilgetzea eta bide publikotik kentzea

a) Bide publikotik kendu eta udal depositura eramateagatik, 66,05 € eta 10,95 € gehiago bertan egiten duen egun bakoitzeko, ibilgailua depositura eraman eta hurrengo egunetik hasita.

b) Ibilgetzeagatik, 39,55 €.

Hori guztia egingdako arau-urraketaren salaketagatik dagokion isunaren zenbatekoaz aparte, aurretik jarri eta ordaindu gabe daudenak ere gaineratuz.

J Epigrafea : Ur-hornidura zerbitzua

1. Etxeko erabilera

Tarifak bi kopuru izango ditu, bat fijoia eta bestea aldakorra ur-kontsumoaren eta etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsonen arabera. Kopuru fijoia 12,62 €/hiruhilero izango da eta aldakorra, hiruhilero ere:

erroldatutako pertsonako eta hiruhileko 10 m³-ko kontsumora arte 1,135 €/m³

erroldatutako pertsonako eta hiruhileko 10 m³-ko kontsumotik gora 1,829 €/m³

Tarifa sistema berriaren irizpide orokorrak:

-etxebizitza bakoitzean erroldatutakoen kopurua hartuko da epealdi bakoitzaren lehen egunekoa, hau da, urtarrilaren 1ean, apirilaren 1ean, uztailaren 1ean eta urriaren 1ean.

-alokatuta dauden etxebizitzetara dagokionez: ez badago inor erroldatuta, alokairu kontratua ekarriz gero, kontratua udalera ekarri eta hurrengo epealditik aurrera alokairu kontratuan jasotzen diren pertsonen kopurua aintzat hartuko da kontratuaren iraupen berdinarekin. Alokairu kontratua EAEko Hiri-finken errentamendu-kontratuen erregistroan alta emanda egon beharko da eta etxebizitzaren jabea altan egon beharko da JEZren matrikulan dagokion epigrafean.

-etxebizitza baten kontsumoa badago ez egon arren inor erroldatuta: kasu honetan kontsumo guztiari 1,829 €/m³-ko tarifa ezarriko zaio.

2. Merkataritza eta zerbitzuak

Tarifak bi kopuru izango ditu, bat fijoia eta bestea aldakorra ur-kontsumoaren arabera. Kopuru fijoia 12,62 €/hiruhilero izango da eta aldakorra, hiruhilero ere, 50 m³-ko kontsumora arte 1,135 €/m³ eta 50 m³-ko kontsumotik gora 1,829 €/m³

3. Industria, ostalaritza eta merkatalguneak, ondorengoak barne, hiruhilero eta 50 m³-ko minimoarekin

+Harategi eta arrandegiak

+Iturgin, igeltsero, aroztegi, margolari eta beste gremio guztiak

+Ibilgailu tailerrak

50 m3 arte: 1,313 €/ m3
50 m3tik gora: 1,589 €/ m3

4. Ikastetxe, eskola eta ikastolak (Mizpirualde egoitza, Agorrosin igerilekua eta Udal Euskaltegia ere) Tarifak bi kopuru izango ditu, bat fijoia eta bestea aldakorra ur-kontsumoaren arabera. Kopuru fijoia 12,62 €/hiruhilero izango da eta aldakorra, hiruhilero ere, kontsumo oro 1,135 €/m3

5. Jabe komunitateetako kontadore bakarra (ur-beroa), minimo gabe

erabiltzaile kopurua x 20 m3 arte, hiruhilero 0,87 €/ m3

erabiltzaile kopurua x 20 m3tik gora, hiruhilero 1,79 €/ m3

Tarifa hau aplikatzeko baldintza hau bete beharko da: Udalean deklarazio bat aurkeztu beharko dute ur-beroaren erabiltzaile kopurua zein den azalduz.

6. Kontadoreen kontserbazioa

	€
20 mm-tik beherakoak	2,79
25 mm-koak	4,50
30 mm-koak	5,90
40 mm-koak	18,39
50 mm-koak	20,86
65 mm-koak	25,86
80 mm-koak	32,98
100 mm-koak	40,29

7. Lotuneen kontserbazioa

	€
Tarifa 1-ekoak	1,00
Tarifa 2-koak	1,00
Tarifa 3-koak	4,53

8. Sarera lotzeko eskubideak

	€
Zerbitzuan alta, kontadorea jarri barik -lehendik dagoelako-	43,35
Zerbitzuan alta, 13 mm-ko kontadorearekin	97,75
Zerbitzuan alta, 15 mm-ko kontadorearekin	96,40
Zerbitzuan alta, 20 mm-ko kontadorearekin	106,75

Zerbitzuan alta, beste neurri bateko kontadore batekin (gehi kontadorearen prezioa)	69,95
Sare orokorrerako lotura, lehen aldiz	136,60

9.- Noizbehinkako erabilerak eta jarduera bareko lokalak

Tarifak bi kopuru izango ditu, bat fijoia eta bestea aldakorra ur-kontsumoaren arabera. Kopuru fijoia 12,62 €/hiruhilero izango da eta aldakorra, hiruhilero ere, 3,67 €/ m³

10. Ur ihesen fakturazioa

Ur-ihesak tarifa berezi bat dute, uraren altako koste prezioarekin, ur-ihes bat egon dela frogatuz gero (adibidez, iturgin baten faktura aurkeztuta, eta aurreko eta ondorengo kontadoraren irakurketek kontsumoa normalizatu dela frogatzen badute). Ihesa antzeman eta konponketaren artean, behar besteko azkartasunarekin jokatu beharko dute. Ihesa antzematean, egoera hori jakinaraziko zaie eta jakinarazpen horren datara arteko kontsumoa horrela fakturatuko da, ihesa konponduz gero: kontsumo historiko batazbestekoa tarifa normalarekin eta hortik gorakoa uraren koste prezioan.

%95eko hobaria izango dute lehen hiru urteetan zehar (hau da, lehenengo hamabi ordain agirietan) eraikin beheko lokaletan kokatzen diren eta katastroan lokal komertzial izaera duten merkataritza jarduera ekonomiko berriek, baldin eta udalerriko jarduera ekonomikoen matrikulan 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea, apirilaren 20koa Ekonomi jardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoan jasotzen den I. Eranskineko Lehen Sekzioko 6. Saileko epigrafe batean altan ematen badira lehen aldiz.

Hobaritik at geldituko dira:

-aipatutako epigrafeetako batean altan egonda ere, azken lau urteetako ekitaldi baten 1.000.000 eurotik gorako fakturazioa izan duten jarduerak, edota fakturazio kopuru hori izan duten enpresen taldekoak direnak.

-frankizia, multinazional, enpresa taldeak eta antzekoak, eta, orohar, ohiko egoitza fiskala udalerritik kanpo daukatenak.

-ostalaritzako jarduerak.

Hobaria ofizioz aplikatuko da, hiru urteetan zehar tarifa finkoa eta 50m³ beherako tarifa aldakorra ez delarik ordain araziko.

"Uraren ziklo osoaren kudeaketa arautzen duen Ordenantza" epigrafe honen osagarri izango da.

Kudeaketaren inguruan, alta eta bajen prorrateoa horrela izango da:

- Epe osoan alta emanda dagoen abonatu batek, nahiz eta epe naturalaren araberako proportzioak aplikatu, %100 ordaindu beharko du.
- Epe osoan alta emanda ez dagoen abonatu batek:
 - Titular aldaketak: Industrialak ez diren kasuetan, proportzioa aplikatuko da kontsumoari lotutako tarifetan eta zaborrean, bi abonatuei. Kuota finkoak -uraren zati finkoa eta bi kanonak- oso-osorik ordaindu beharko dituzte bi abonatuek. Industrialetan, ez da proportziorik aplikatuko ur-tarifetan baina bai zaborrean.
 - Behin-betiko bajak: Industrialak ez diren kasuetan, urari dagozkion kontzeptuetan, epe naturalaren araberako proportzioak aplikatuko dira kontsumoari lotutako tarifetan, baina zaborraren kontzeptua osoki ordaindu beharko du. Industrialetan, ez da proportziorik aplikatuko ur-tarifetan baina bai zaborrean.
 - Altak: Industrialak ez diren kasuetan, proportzioa aplikatuko da kontsumoari lotutako tarifetan eta zaborrean. Kuota finkoak -uraren zati finkoa eta bi kanonak- oso-osorik ordaindu beharko ditu abonatuak. Industrialetan, ez da proportziorik aplikatuko ur-tarifetan baina bai zaborrean.

K epigrafea: Udal frontoiak, igerilekuak eta kiroldegiko instalazioak

Bergarako Udalak jarduera fisikoa eta kirola sustatzea garrantzitsua ikusten du herritarrek eta beste herrietako pertsonak bizitza osasuntsua izateko. Hori dela eta, Udalak kirol instalazioak eraiki ditu erabiltzaileek kirola egin dezaten. Jarraian agertzen dira instalazioak erabil ahal izateko dauden abonua, jarduerak, sarrerak eta erreserbak.

1. KIROL ABONUAK

Agorrosineko kirol gunean edo Labegaraietan sartu ahal izateko, erabiltzaile bakoitzak abonua izango du (urtekoa edo hilekoa) eta familia-unitate bat bada abonuan murrizpenak izan ditzake. Horretaz gain, Bergaran erroldatua gazte-ikaslea bada, edo bere diru sarreren arabera, edo 65 urtetik gorakoa edo familia monoparentala, hobariak ere izan ditzake.

1.1. BALDINTZAK

1.1.1. ADINA

Lau abonua mota daude adinaren arabera:

- 0 urtetik 2 urtetaraino
- 3 urtetik 13 urtetaraino
- 14 urtetik 17 urtetaraino
- 18 urtetik gora

Beraz, adina edukiko da kontuan, espresuki beste irizpide bat aplikatzen dela jasotzen ez bada. Tasa kobratuko da hilabete horren lehen egunean erabiltzaileak duen adinaren arabera. Eta azkenik, urteak betetzen dituen hilabetearen hurrengo hilabetetik aurrera adin berriaren arabera tasa ordaindu beharko du erabiltzaileak. Adin txikikoen kasuetan, ordainketen ardura adin txikiko horren zuzeneko tutoreak hartuko du.

1.1.2. FAMILIA.

Abonuaren antolaketarako Bizikidetzaren Unitateak familia-balioa izango du, familia arrunta (bi tutorek eta beren seme-alabek osatzen duten unitatea) eta, aintzat hartuko dira tutore bakarraz osatutako familiak (monoparentalak).

1.1.3. HOBARIAK

Bergaran erroldatuta ez dauden eskatzaileek, eskabidearekin eta dokumentazioarekin batera, bizikidetzaren unitatearen errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

1.1.3.1. MONOPARENTALAK

Familia-unitate bati tasa monoparentala aplikatu ahal izateko, abonurako alta-eskabidean hala idatzita adierazi beharko du eta, nahitaez, eskatzaileak seme-alabekin erroldatuta egon beharko du. Alta egiterakoan familia-unitate bakoitzeko orri bat beteko du, argi eta garbi adieraziz zein kontu korrontetan (hori bada kobrantza egiteko darabilen bidea) kargatuko diren familia-unitate bakoitzeko karguak. Tasa monoparentalaren baja automatikoa izango da urte naturalaren amaieran. Monoparental izaera aitortzen zaien kasuetan, tutore biak abonatuak direneko tasa berdina aplikatuko zaie.

1.1.3.2. GAZTE IKASLEA

Gazte ikaslea izango da ikasketak egiten ari den 18-24 urte bitarteko gaztea. Egoera hori ziurtatzeko, eskatzaileak abonua egiterakoan honako dokumentu hau aurkeztu beharko du:

- Une horretan egiten ari den Unibertsitateko, Lanbide-heziketako edo Hezkuntza Erregelatuko ikasketen ziurtagiria. Bestelako ikasketek ez dute balioko Gazte Ikasleen tasa aplikatzeko.

Prezio murriztuaren indarraldia ikasle hori matrikulatuta dagoen ikasturtearen iraupen bera izango da. Ikasturtea bukatu eta gero, kirol-zerbitzuak ikasleari baja emango dio automatikoki. Ikasturtea irailtik irailerako bitartean dela kontsideratuko da.

1.1.3.3.TARIFA SOZIALA

- TARIFA SOZIALA. 1. ALDAERA.

Baldintzak: Tarifa sozialaren aldaera hau aplikatzeko, ondorengo hiru egoera hauetako batean laguntza jasotzen duelako aldeko ebazpen idatzia aurkeztu beharko du herritarrak:

-Lanbideren Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza («AGI - Ayuda de Garantía de Ingresos»).

-Udaleko Gizarte Larrialdietarako Laguntza (erdaraz, «AES municipales»).

-Asilo-eskaera eginda duten bizikidetz-unitateei; zehazki, «Documento acreditativo de la condición de solicitante en tramitación de protección internacional» eskatuta dutenei (txartel txuria, «Resguardo de solicitud de protección internacional»). Txartelaren emate datatik 6 hilabeteetara izango da aplikagarria, non lan egiteko eskubiderik ez duten.

Herritar onuradunak, ebazpenarekin batera, abonurako alta-orria bete eta aurkeztuko du.

Tarifa sozial honen onarpenak ohiko abonuen % hirurogeita hamabosteko murrizketa-hobaria dakar. Eskaera Agorrosinen egin beharra dago.

Tarifa honen indarraldia 6 hilekoa izango da, eta epe hori zenbatuko da ebazpena onartua izan den egunetik aurrera. Behin epealdi hori iraungitakoan, era automatikoan baja emango zaio bizikidetz-unitate osoari.

- TARIFA SOZIALA. 2. ALDAERA

Baldintzak:

1. Bizikidetz-unitateko kide guztien diru-sarreraren batura jarraian adierazitako baremoan jasotakoa baino gehiago ez izatea.

2. Udalarekin ordaindu gabeko zorrik ez izatea.

Baremoa	Urteko diru-sarrera (€)
Pertsona bateko bizikidetz-unitatea	22.029,00
Bi pertsonako bizikidetz-unitatea	29.805,23
Hiru pertsonako bizikidetz-unitatea	35.247,67
Lau pertsona edo gehiagoko bizikidetz-unitatea	40.689,91

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. NAN agiriaren fotokopia (unitate familiarra osatzen duten kide guztiena)

2. Pertsona Fisikoen Errentaren azken ekitaldiko aitortpenaren fotokopia edo, bestela, egin ez izana justifikatzeko agiria (Ogasunean emango zaio agiri hau).

3. Langabezian daudenek, Gizarte Segurantzako "lan-bizitza" agiria eta prestaziorik ez dutela jasotzen egiaztatzeko Lanbidek emandako agiria.

4. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) edo antzeko laguntzarik jasotzen egonez gero ez da aurkeztu beharko 2. eta 3. puntuetako dokumentazioa; baina aurkeztu egin beharko da DBE jasotzen ari izanaren egiaztagiria.

Tarifa sozial honen onarpenak ohiko abonuen %50eko murrizketa-hobaria dakar. Eskaera Agorrosinen egin beharra dago.

Tarifa honen indarraldia 6 hilekoa izango da. Epealdi hori iraungitakoan, era automatikoan baja emango zaio bizikidetz-unitate osoari.

1.1.3.4. 65 URTE ETA HORTIK GORAKOENTZAKO ABONUA, ORDUTEGI MURRIZTUAREKIN

1960an edo lehenago jaiotako eta Bergaran erroldatuta dauden herritarrek tarifa-aldaera honetaz gozatzeko aukera izango dute. Ohiko hiru abonuen kostuaren % 25eko murrizketa aplikatuko zaie. Ondorengo erabilera-ordutegi mugatua izango dute: lanegunetan irekieratik 16:00ak arte; jaiegun eta larunbatetan, berriz, ez du ordutegi-murrizketarik.

Tarifa sozialak eta nagusientzako tarifak bateraezinak dira, hau da, bataren edo bestearen artean aukeratu behar du herritarrek. Adibidez, Ezinezkoa izango da aldi berean aplikatu tarifa soziala eta nagusientzakoa, pertsona edo familia-unitate bati.

* Abonuaren alta eta bajaren kudeaketa

1. Abonuak, era automatikoan, hilabete bakoitzeko 26an berritzen dira.

2. Erabiltzaileak abonua berritu nahiko ez balu, hilaren 25a baino lehen (25a barne) baja-orria bete, sinatu eta aurkeztu beharko du Agorrosin Ekintza Gunean edo web-gunean. Bestelako alta eta baja modurik ez da onartuko.

1.2. KIROL ABONUEN MOTAK

Tasak ondorengoak izango dira, betiere abonu-motaren, Bergaran erroldatuta egon edo ez egotearen, adinaren eta familia-unitate bakoitzeko –hilabeteko lehenengo egunean– abonatu-kopuruaren arabera.

Hileko lehen egunean familia-unitate barruan abonatu diren kideen kopuruaren arabera aplikatuko dira familia deskontuak.

1.2.1. BERGARAKO KIROL-ABONU ARRUNTA

Abonu arruntean dauden zerbitzuak dira –ezarritako ordutegi eta egutegi zehatzetan– honako hauen erabilera:

Instalazioak:

Agorrosin Ekintza Guneako igerilekuetako aldagelak, igeri-ontziak eta berdegunea.

Agorrosin Ekintza Guneako aldagelak, fitness-aretoa, areto-txirriinduren gela eta bertoko begirale-aholkularitzaren zerbitzua.

Labegaraietako aldagelak, gimnasioa eta rokodromoa.

Prezio desberdinak ikastaroetan eta erreserbetan.

Beherapenak Bizikidetzaren Unitatearen kideen arteko adin-konbinazioetan.

Mugiment Kirol Txartela

Abonu arrunta				
	Urteko (€)	Hileko a (€)	Hilekoa tarifa sozialareki n (€)	Hilekoa tarifa sozialarekin 2 (€)

0 urtetik 2raino. Haur txikia.	0,00	0,00	0,00	0,00
3 urtetik 13raino. Haurra.				
Haurra, familiako helduak abonatu direnean. (Erroldatuta dauden familia monoparentalak barne).	0,00	0,00	0,00	0,00
Haurra, familiako heldu bat abonatu denean.	65,85	6,59	1,64	3,29
Haurra, familia-unitatean helduak abonatu ez direnean.	131,82	13,18	3,29	6,59
14 urtetik 17raino. Gaztea.				
Gaztea, familiako helduak abonatu direnean. (Erroldatuta dauden familia monoparentalak barne).	65,85	6,59	1,64	3,29
Gaztea, familiako heldu bat abonatu denean.	105,29	10,55	2,63	5,27
Gaztea, familia-unitatean helduak abonatu ez direnean.	157,99	15,80	3,96	7,90
Gazte ikaslea eta diru-sarrerarik ez duenean.				
Gazte ikaslea, familiako helduak abonatu direnean (Erroldatuta dauden familia monoparentalak barne).	Ez dago	6,59	Ez dago	Ez dago
Gazte ikaslea, familiako heldu bat abonatu denean.	Ez dago	10,53	Ez dago	Ez dago
Gazte ikaslea, familia-unitatean helduak abonatu ez direnean.	Ez dago	15,80	Ez dago	Ez dago
18 urtetik gora. Heldua.	263,52	26,35	6,59	13,17
65 urte edo gorakoak ordutegi-murrizketarekin	197,55	19,76	Ez dago	Ez dago

1.2.2. AGORROSINGO BAINUETXEKO ABONUA

Abonu honek Agorrosin Ekintza Guneko bainuetxea (SPA) erabiltzeko baino ez du balio. Ez zaizkio abonu arruntaren zerbitzurik atxikitzen.

Bainuetxerako abonua	
----------------------	--

	Urtekoa (€)	Hilekoa (€)
Gazte ikaslea eta diru-sarrerarik ez duenean.		
Gazte ikaslea, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	Ez dago	4,41
Gazte ikaslea, familiako heldu bat abonatu denean.	Ez dago	7,08
Gazte ikaslea, familia-unitatean helduak abonatu ez direnean.	Ez dago	10,58
65 Urte edo goragokoa, ordutegi-murrizketarekin	132,67	13,26
18 urtetik gora. Heldua.	176,73	17,67
T.S. 1	Ez dago	4,42
T.S. 2	Ez dago	8,85

1.2.3. BERGARAKO KIROL-ABONU OSOA

Abonu honek abonu arruntaren eta bainuetxerako abonuaren zerbitzuak eta instalazioak hartzen ditu.

Kirol abonu osoa	Urtekoa	Hilekoa
	(€)	(€)
Gazte ikaslea eta diru-sarrerarik ez duenean		
Gazte ikaslea, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	Ez dago	8,09
Gazte ikaslea, familiako heldu bat abonatu denean.	Ez dago	12,94
Gazte ikaslea, familia-unitatean helduak abonatu ez direnean.	Ez dago	19,43
65 urte edo goragokoa, ordutegi-murrizketarekin	242,95	24,29
18 urtetik gora. Heldua.	323,89	32,39
Arruntetik osora aldaketa (heldua)	Ez dago	6,04
Bainuetxetik osora aldaketa (heldua)	Ez dago	14,71
T.S. 1	Ez dago	8,09

Kirol abonua osoa	Urtekoa	Hilekoa
	(€)	(€)
T.S. 2	Ez dago	16,19

1.2.4. KIROL ABONU FEDERATUA

Ipintzako edota Agorrosingo futbol zelaiak, Labegaraieta kiroldegia, Udal Pilotalekua, Agorrosingo igerilekua, edo Udalak lagatuko beste kirol instalazio erabiltzen dituzten federatuei honako tasak aplikatuko zaizkie:

1. 16 urtetik beherakoentzat, 30 euro denboraldiko.
2. 16 urte edo goragokoentzat, 50 euro denboraldiko.
3. Elkarteko kirolari izateko kuotan tarifa soziala aplikatzen zaien kirolarientzat, 15 euro denboraldiko.

Tasa hau ordainduz, 2024/2025 denboraldirako, astean hiru (3) egunetan sartu daiteke entrenatzera eta laugarren egun batean astean lehiaketarako.

Denboraldian zehar 6 hilabetez Agorrosingo abonatuia izan dena salbuetsita egongo da ordainketa hau egiteaz.

Kirolariei dagokie ordainketa egitea.

2. EGUNEKO SARRERAK

2.1. EGUNEKO BANAKAKO SARRERAK

- Sarrerak pertsonalak eta besterenezinak dira. Erabiltzailea sarrera honekin nahi adina aldiz sartu eta irten ahal izango da instalazioetatik, egun horretan bertan zehar, betiere salmenta-txartela aurkezten badu.

- Kirol-eremu bakoitzerako sarbide-eskubidea eremuaren berariazko araudian jasotakoaren arabera egingo da.

- Bi sarrera-mota daude adinaren arabera:

2.1.1. Haur eta gazteen banakako sarrera (3 urtetik 17raino): Sarrera honek eskubidea ematen du hauek erabiltzeko: igerilekua, fitness-aretoa eta bertoko begirale-aholkularitza zerbitzua (14 urtetik gorako erabiltzaileentzat bakarrik) eta eremu hauetako aldagelak. Sarrera honek barne darama Labegaraietako instalakuntzetarako sarbide-eskubidea

2.1.2. Helduen banakako sarrera: Sarrera honek eskubidea ematen du hauek erabiltzeko: igerilekua, fitness-aretoa, bainuetxea, fitness eta bertoko begirale-aholkularitza zerbitzua eta eremu hauetako aldagelak. Sarrera honek barne darama Labegaraietako instalakuntzetarako sarbide-eskubidea.

Sarrera arrunta	Sarrera (€)
Haur txikien banakako sarrera (0tik 2 urteraino)	0,00

Haur eta gazteen banakako sarrera (3tik 17 urteraino.)	4,25
Adin nagusikoen banakako sarrera	7,80
Haur eta gazteen banakako egun erdiko sarrera (arratsaldeko lauretatik aurrera)	2,80
Adin nagusikoen banakako egun erdiko sarrera (arratsaldeko lauretatik aurrera)	5,15

2.2. EGUNEKO TALDE-SARRERA

Udal Kirol Zerbitzuari eskaera idatzia egiten dioten entitateei baiezkoa ematen bazaie, talde-sarrerako tarifa aplikatuko zaie. Sarrera hau eskola, udaleko beste zerbitzuetako ekintzetako eta izaera bereziko taldeentzako aplikatuko da. Agorrosin Ekintza Gunean udaleko baimena aurkeztu eta ordainketa sarrera-une berean egin beharko dute.

Eguneko talde-sarreran, adinaren arabera bi tasa kobratuko dira. Ez da erroldatuen eta ez erroldatuen arteko bereizketarik egingo.

	Sarrera (€)
Haur eta gazteen talde-sarrera, bakoitzeko (3tik 17 urteraino.)	3,00
Adin nagusikoen talde-sarrera, bakoitzeko	5,45

2.3. EGUNEKO FORMAZIO ETA ERRESERBEN SARRERA

Kirol udal instalazioetan, hainbatetan, kanpoko erakundeek formazio edota instalazio batzuetako behin behineko erabilera egiten dituzte. Horietarako ondorengo tasa dago. Tasa honek ez du udal kirol instalazioak desberdintzen.

	Sarrera (€)
Ikastaro-ikasle bakoitzeko eta Ikastaro-egun bakoitzeko. Adin txikikoak (perts./eguna)	2,40
Ikastaro-ikasle bakoitzeko eta Ikastaro-egun bakoitzeko. Helduak (perts./eguna)	6,00

2.4. BILERA-ARETOEN ERABILERA

Kiroletakoak ez diren jarduerak bilera-aretoetan egin ahal izateko, lehendabizi Udal Kirol Zerbitzuaren erabilera-baimena eduki behar da eta, ondoren, erabilera-egunean bertan tasa hau ordaindu:

	Prezioa (€)
Ordubete bat	18,00

Eguna	60,00
-------	-------

3. KIROL INSTALAZIOEN ERRESERBAK

3.1. AGORROSINGO PADEL PISTA

	Abonatuak orduko (€)	Ez abonatuak orduko (€)
Agorrosineko padel pista	12,00	12,00

Tasa ordubetekoa da, erreserba ordu eta erdikoa bada, erabiltzaileak, tasa bider 1,5 ordaindu beharko du.

3.2. LABEGARAIETAKO TASAK

Ondorengo koadroetan jasotako kirol-instalazioak erreserbatu ahal izango dira, dagozkien tasak ordainduta:

	Abonatuak (€)	Ez abonatuak (€)
Labegaraietako kiroldegiko udal tenis-pista		
Ordubete. Argiarekin beharrezkoa denean.	6,01	8,37
Hilabeteko erreserba, astean ordu bat. Argiarekin beharrezkoa denean.	17,98	25,16
Labegaraietako udalaren kirol pista erabilanitza		
Barruko kantxa osoa. Ordubete. Argiarekin beharrezkoa denean.	36,53	48,61
Kanpoko kantxa osoa. Ordubete. Argiarekin beharrezkoa denean.	12,31	16,50
Barruko kantxa osoa. Ordubete eta hilabete osorako. Argiarekin beharrezkoa denean.	95,10	126,57
Barruko kantxa baten herena. Ordubete. Argiarekin beharrezkoa denean.	26,16	34,65
Labegaraietako kirol pista erabilanitz estalia		

Kirol-jarduerak ez diren ekitalditarako eta egun osorako	249,13	
Txapelketak antolatzen direnean. Tasa denboraldi eta talde bakoitzekoa da.	260,44	

- Unean uneko eta izaera puntualeko erreserbak Labegaraietako Kiroldegiko tabernan kudeatuko dira.
- Hileko erreserbak Agorrosin Ekintza Guneko idazkaritzan kudeatuko dira.
- Kirol-jarduerak ez diren ekitaldien tasa Agorrosin Ekintza Guneko idazkaritzan kudeatu eta ordainduko dira.

3.3. UDAL PILOTALEKUEN HILEKO ERRESERBEN TASAK

Udal pilotalekuen erreserbak	Abonatuak orduko (€)	Ez abonatuak orduko (€)	Abonatuak hileko (€)	Ez abonatuak hileko (€)
Basalگو, Bolu eta Elorregiko udal pilotalekuak			22,21	29,52
Zabalotegi, Osintxu, Angiozar eta Uberako udal pilotalekuak eta bertako aldagelak			29,29	39,13
Fraiskozuriko udal pilotalekua (orduko)	14,90	19,85	59,64	79,66
Frontoietako aldageletako giltzaren fidantza	20 €			

Fraiskozuri udal pilotalekuko egun osorako erreserba: 249,61 euro.

- Fraiskozuri udal pilotalekuko garbiketa: Beheko solairua eta gomak, 131,65 euro / kantxa eta beheko aulkiak, 192 euro / pilotaleku osoa, 263,3 euro.

- Erreserbatutako orduetan argia –beharrezkoa denean– sartuta dago. Erreserba egiten denetik argia programatzen den bitartera astebeteko epea igaro daiteke.

- Aldagela batzuetarako giltzak erabili behar dira. Erabiltzaileek aldagela horietako giltza nahi balute 20 euroko fidantza utziko dute erreserba mantentzen duten bitartean. Erreserba egiteari utzi eta giltzak Agorrosin Ekintza Gunean entregatutakoan itzuliko zaie fidantza.

3.4. AGORROSIN ETA IPINTZA FUTBOL-ZELAIEN ERRESERBA.

Erreserba egin ahalko da BKEko (Bergara Kirol Elkarteko) kirol taldearekin adostutako ordu eta egunetan; aukera horiek Agorrosin Ekintza Guneko iragarki-taulan argitaratuko dira. Futbol zelaietako erreserbetan argia sartuta dago beharrezkoa den guztietan. Erabiliko diren aldagelak Agorrosin Ekintza Gunekoak edo Ipintza Udal Futbol zelaikoak izango dira, kasuan kasuko ematen diren ordutegiaren arabera.

Agorrosin eta Ipintza udal futbol-zelaiaren erreserba:

	Abonatuak (€)	Ez abonatuak (€)
--	---------------	------------------

Futbol 8 zelaia. Ordubeteko erreserba.	46,19	62,58
Futbol-zelai osoa. Ordubeteko erreserba.	62,75	83,43

3.5. KIROL-EREMUETAN ERRESERBAK EGITEKO PROZEDURA

Erreserbak egin ahal izateko, Bergarako Udal Kirol Zerbitzuak onartutako araudiaren arabera egingo dira. Bi erreserba-mota egin daitezke:

3.5.1. Unean uneko erreserba.

- Erreserba egiten den unean eta instalazioan bertan ordaindu beharko da tasa.
- Abonatuak erreserbak astebete lehenago egiteko aukera izango du. Bestelako erabiltzaileek, berriz, bi egun natural lehenago.
- Egun eta ordu berberetarako aurkeztutako bi eskaeren edo gehiagoren artean, lehentasuna izango du aurretik egin denak.

3.5.2. Hileko erreserba.

- Erabiltzaileak hileko erreserba egiten duenean, automatikoki, hurrengo hilerako berrituko zaio, aurkako bazarrik hileko 25. eguna baino lehenago idatziz aurkezten ez badu. Honela erreserba behin eta berriro luzatuko da, erabiltzaileak kontrakoa jakinarazten ez duen arte.
- Instalazioaren erreserba Agorrosin Ekintza Gunean soilik egingo da.
- Beharrezkoa denean, UKZk erreserbak zozketen bitartez adjudikatuko ditu.

3.5.3. Kirol-instalazioak ondorengo jarduera fisiko zehatz hauek burutzeko erreserbatu ahal izango dira:

- Labegaraietako barruko kantxa: areto-futbola, saskibaloia, boleibola, eskubaloia, tenisa eta irristaketa.
- Labegaraietako kanpoko kantxa: areto-futbola, saskibaloia, eskubaloia eta irristaketan aritzeko
- Labegaraietako tenis pista: tenisean aritzeko.
- Udal pilotalekuak: euskal pilotako joko-aldaeretan eta frontenisean jokatzeko.
- Agorrosin eta Ipintza eta futbol-zelaiak: futbolean aritzeko.
- Agorrosingo padel pista: padelerako.
- Beste jarduera fisikoren bat egin nahi bada instalazio horietan, Kirol Zerbitzuari baimena eskatu eta honek baimena idatziz eman beharko du. Baimena emanez gero, goian jasotako tasak ordaindu beharko dira.
- Nahikoa izango da erreserba-eskaera egiten dutenen artean erabiltzaile bakar bat abonatua izatea abonatu-tarifa aplikatzeko.
- Erreserba-eskaerak pertsona bakar batek egin ahal izango ditu eta berau izango da erreserbaren erantzukizuna duena.

3.6. TALDE BEREZIEK KIROL-EREMUEN ERRESERBA EGITEA ETA ERABILTZEA

Berriazko dituzten helburuak lortzeko, ondoren zehazten diren honako talde hauek kirol-instalazioak

erabili ahal izango dituzte:

- BERGARAKO IKASTETXEAK. Ikastetxeetako ikasleek kirol-instalazioak erabil ditzakete, aurretik horretarako eskaera aurkezten badute eta UKZk (Udaleko Kirol Zerbitzuak) eskaera hori onartzen badu.

- BERGARAKO KIROL-ENTITATEAK. Bergarako kirol-entitateek kirol-instalazioak erabil ditzakete, aurretik horretarako eskaera aurkezten badute eta UKZk (Udaleko Kirol Zerbitzuak) eskaera hori onartzen badu. Kirol elkarteak salbuetsita egon daitezke kirol eremuen erreserben ordainketarako.

- ENTITATEAK ETA TALDEAK. Udal Kirol Zerbitzuak behin-behinekoz eta unean uneko ekintzetarako erreserba hauek bideratu ahaliko ditu antolatutako talde eta erakundeentzat.

Urtean urteko hartutako erabakien bidez, udalak zein erakunde egongo diren salbuetsita adieraziko die erakunde bakoitzeko eskaeraren erantzunetan.

4. JARDUERAK

Ikasturtearen hasiera irailaren erdialdean izango da eta amaiera ekainaren bukaeran. Dena den, ikasturtea uztaile arte ere luzatu ahal izango da baldin eta gutxieneko partaidetza bermatzen bada. Hau kontuan izanik, irailean ordainagiriaren erdia kobratuko da eta gainontzeko beste hilabeteetan ordainagiri osoak kobratuko dira.

Ordaindu beharreko tasei dagokienean, bereizi egingo dira abonatuak eta ez abonatuak. Abonatuak dela ulertuko da abonatu arrunta edo abonatu osoa duen pertsona. Irizpide honetatik kanpo geratzen dira bainuetxeko abonatuak duten herritarrak.

Ikasturteko ikastaroak	Ordainketa	Abonatuak 24/25 (€)	Ez abonatuak 24/25 (€)
Astean saio bateko jarduera	Hilekoa	14,16	28,93
Astean bi saioko jarduera		28,32	57,88
Egokitua, ur terap., gim. senior.		28,32	28,32
Astean saio bateko igeriketa		16,56	33,75
Astean bi saioko igeriketa. Akuafit. aerofit.		33,12	67,50
Areto bizikleta, bi saio astean		30,86	62,94
PREMIUM PLAZA. Plaza erreserba gabeko jarduerak		21,24	43,41
Astean saio bateko Padela		30,78	62,80
Haur ur jarduerak		Hiruhilekoa	68,19
Yoga	Hilekoa	39,66	84,98

Ikastaro puntualak	Abonatuak 24/25 (€)	Ez abonatuak 24/25 (€)
Gehienez 8 partaide, 2 saio	47,25	61,42
Gehienez 14 partaide, 2 saio	37,79	49,12

TARIFA SOZIALA:

Tarifa soziala aplikatzeko baldintzak:

- Elkarbizitza-unitateak Bergaran erroldatuta egon behar du.
- Elkarbizitza-unitateak diru-kopuru hau baino gutxiago jaso behar du urtean.

Baremoa	Urteko diru-sarrera (€)
Pertsona bateko bizikidetza-unitatea	22.029,00
Bi pertsonako bizikidetza-unitatea	29.805,23
Hiru pertsonako bizikidetza-unitatea	35.247,67
Lau pertsona edo gehiagoko bizikidetza-unitatea	40.689,91

Horretaz gain, entrenamendu gidatu eta egokituak, talde txiki edo pertsona bakarrari.

Herritarrek aukera izango dute Udal Kirol Zerbitzuarekin entrenamendu gidatu baten begirale-zerbitzua kontratatzeko. Taldekako edo bakarkako entrenamendu horiek herritarren kirol premietara ahalik eta gehien egokituko dira. Zerbitzu honetan herritarrek begirale bat kontratatuko du epe eta ordu jakin batzuetarako. Taldeak gehienez zazpikoak izango dira. Zerbitzua unean uneko begiralearen disponibilitatearen arabera izango da. Erreferentziarako tasa bezala, hau izan daiteke baliagarria:

	Abonatuak 24/25 (€/orduko)	Ez abonatuak 24/25 (€/orduko)
1-7 pertsona	49,20	65,42

4.1. MATRIKULA

Ikasturteko ikastaroetan izena ematerakoan, 18 euroko matrikula ordaindu beharko dute, Bergarako kirol-abonatu izan edo ez izan. Igeriketa-eskola eta udako kanpaina antolaketa honetatik kanpo daude.

Erabiltzaileari ordaindutako matrikula itzuliko zaio kasu hauetan:

- Ikastaroa amaitu ondoren.
- Gutxieneko asistentzia betetzen ez denean eta erabiltzailea plaza uztera behartzen denean.
- Arrazoi medikuengatik ikastaroan jarraitzea ezinezkoa gertatzen zaionean.

Jardueren iraupena: ekainaren bukaeran matrikula itzuliko da baina jarduera uztailearen bukaerara arte luzatzeko aukera izango da, betiere erabiltzaile-kopuru gutxienekoa bermatuta badago.

4.2. TASEN ORDAINKETA

Jardueretan tasak hileroko ordaindu beharko dira, jarduera bakoitzarentzat ezarritako egutegiaren arabera eta baja ematen ez den bitartean.

4.3. ITXAROTE-ZERRENDA ETA SAIOETAKO ASISTENTZIA-KONTROLA.

Saio bakoitzean erabiltzaileen asistentzia kontrolatuko da. Gutxienez, hileko saioen erdira eta bat gehiagora agertzeko konpromisoa eskatuko zaie herritarrei. Konpromiso hori betetzen ez duen herritarrak plaza galdu ahal izango du eta plaza hori itxarote-zerrendan dagoen lehenengoari eskainiko zaio, baldin eta kale egiteak justifikatzen ez badira.

Erabiltzaile bakoitza itxarote-zerrenda bakar batean egon ahal izango da izena emanda

4.4. HILEROKO LUZAPENA

Ikastaroa automatikoki luzatuko da, erabiltzaileak hileko 25a baino lehenago idatziz kontrakoa jakinarazten ez badu Agorrosin Ekintza Guneko idazkaritzan.

5. BESTELAKO TASAK

Ez da erroldatuen eta ez erroldatuen arteko bereizketarik egingo.

	€
1 unit. Silikonazko igeriketarako txanoa.	4,80
1 unit. Latexezko txanoa.	2,45
Takilletako giltza galdu edo berritzea.	3,60
Abonatu-txartela edota ikastarora joateko laguntzaile-txartela berritzea (galdu, lapurtu edo oker erabiltzeagatik)	6,00

6. KIROL-TASEN ORDAINKETAK

Kirol-tasak ordaintzeko era ezberdinak daude:

- Ordainketak banketxean helbideratuz. Zerbitzuetan izena emandakoan kontu korrontea ematea ezinbestekoa izango da izen-emateak balioa izan dezan. Horrekin batera, kontu korrontearen titularra ere adierazi beharko da zerbitzuen alta-orrian.
- Norberak ordainketa banketxean eginda. Erabiltzaileak Udal Kirol Zerbitzuko kontu korrontean diruzenbatekoa sartu eta ordainagiria aurkeztu beharko du. Ordainagiria epe barruan aurkezten ez bada, edota diru-sarrera egiten ez bada, Kirol Zerbitzuak automatikoki indarrean dauden zerbitzuetatik baja emango dio eta epez kanpoko ordainketaren prozedura hasiko du.
- Datafono bidez Agorrosin Kirol Guneko harreran.
- Web orriaren bidez, helbideratuta.
- Eskudirutan.

Ordainketa epea: zerbitzua erabili aurretik ordaindu beharko da.

Tasa dagokion epean ordaindu gabe badago, UKZk (Udaleko Kirol Zerbitzuak) ordainketa ez dela egin jakinaraziko dio Kontuhartzailletza Sailari eta honek diru-bilketa exekutiboaren prozedura abian jarriko du tasa kobratzeko. Kasu horretan, UKZk baja emango dio erabiltzaileari prozedura exekutiboan dagoen kirol-zerbitzu horretan bertan. Hori berau abonarekin gertatuz gero, sortuko diren erreserba eta ikastaro ordainketak ez-abonatu gisa sortuko dira. Familia-kideen abonuen deskontuetan ere eragina izango du; izan ere, ordainketa zorretan badago, horrek eragingo du tutorearen deskontua ez sortzea.

Jarduera batean dagokion tasa ordaindu ez duelako baja ematen bazaio, matrikula ez du galduko baina plaza gal dezake.

7. AZKEN XEDAPENA

Epigrafe honetan zehaztu ez denetan, ordenantza fiskalaren zati bateratuan jasotakoa aplikatuko da.

Ordenantza honetatik sor daitezkeen erabilera-zalantzak Udal Kirol Zerbitzuko araudiarekin osatuko dira.

L epigrafea: Udal Euskaltegia

Ikasturteko tarifak:

- Tasa orokorra: 1,23 €/orduko.
- C1 maila: 1,29 €/orduko.
- C2 maila: 1,60 €/orduko
- AISA ikastaroa: 10,30 €
- Euskalkia eta hika ikastaroak: 15,45 €
- DBHko hizkuntza-errefortzuak: 10,30 €

OINARRIZKO MATRIKULA (OM): % 15eko beherapena izango du; langabetu, bekadun eta tarifa sozialaren onuradunek, berriz, % 25ekoa. Hobari hau ikasle guztiei aplikatuko zaie, baita Bergaran erroldatuta ez daudenei ere.

TARIFA SOZIALA: Tarifa soziala izango dute Oinarrizko Errenta/Etxebizitza gastuetarako diru-sarrerara osagarria edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradun direnek. OMaren % 25 ordainduko dute. Ikastaro-amaieran, baldintzak betez gero, ordaindutako kopuru osoa itzuliko zaie.

BEKA: OMaren % 50 ordainduko dute. Beka-eskaria onar dadin, etxeko bizikide-kopurua kontuan hartuta, eskatzaileek gehienez ere honako diru-sarrerara garbia (likidazio-oinarria) izan beharko dute:

Bizikide-kopurua	Diru-sarrerara garbia	Bizikide-kopurua	Diru-sarrerara garbia
1	13.236,00€	4	36.421,00 €
2	22.594,00 €	5	40.708,00 €
3	30.668,00 €	6	43.945,00 €

Eskaria egiteko, honako agiriak aurkeztu beharko dituzte Udal Euskaltegiko idazkaritzan:

1. Aurreko urteko errenta-deklarazioaren kopia edo egin ez izanaren zergatia adierazten duen ziurtagiria.

2. Bizikidetza-agiria.

Ikastaro-amaieran, baldintzak betez gero, ordaindutakoaren % 60 itzuliko zaie.

FAMILIA BEREKO KIDEAK: Elkarrekin bizi diren familia bereko bi lagunek izena emanaz gero, 1'5 matrikula ordainduko dituzte; hiruk emanaz gero, berriz, bi matrikula. Bizikidetzagiria aurkeztu beharko dute Udal Euskaltegiko idazkaritzan.

FAMILIA UGARIAK eta ERRETIRATUAK: Familia ugarien txartela eta pentsionista-txartela aurkeztu beharko dituzte, hurrenez hurren, Udal Euskaltegiko idazkaritzan. Ikastaro-amaieran, ordaindutako kopuruaren % 60 itzuliko zaie.

LANGABETUAK: OMaren % 50 ordainduko dute. Bizitza laborala deritzon agiria aurkeztu beharko dute Udal Euskaltegiko idazkaritzan. Ikastaro-amaierako diru-itzulketari dagokionez, honela jokatuko da:

A/ Ikasturte-hasierako matrikula ordaintzerakoan langabetuendako hobaria jaso zuen ikaslearen diru-itzulketari zehazterakoan:

- Urria-ekaina bitartean 4'5 hilabetetik GORA lan egin badu, ikasleak ez du itzulketarik jasoko.
- Urria-ekaina bitartean 4'5 hilabetetik BEHERA lan egin badu eta asistentziaren % 85 bete badu, ordaindutakoaren % 20 jasoko du.
- Urria-ekaina bitartean batere lanik egin ez badu eta asistentziaren % 85 bete badu, ordaindutakoaren % 50 jasoko du.

B/ Ikasturte HASIERAN hobaria jaso EZ baina gerora langabezia izan den (edo dagoen) ikasleari dagokionez:

- Urria-ekaina bitartean 4'5 hilabetetik GORA lan egin badu eta asistentziaren % 85 bete badu, ordaindutakoaren % 25 jasoko du.
- Urria-ekaina bitartean 4'5 hilabetetik BEHERA lan egin badu eta asistentziaren % 85 bete badu, ordaindutakoaren % 50 jasoko du.

IKASLEAK: Ikasle-txartela aurkeztu beharko dute Udal Euskaltegiko idazkaritzan. Ikastaro-amaieran, baldintzak betez gero, ordaindutakoaren % 50 itzuliko zaie.

BIRMATRIKULAZIOA: Dagokien OMaren %75 ordainduko dute, betiere aurreko ikasturte amaierako dirulaguntza jasotzeko baldintzak beteak badituzte.

GAINERAKO ikasleei, ikasturte-amaieran, ordaindutakoaren %25 itzuliko zaie, baldintzak betez gero.

Dirulaguntza hauek jasotzeko, nahitaezkoa izango da Bergaran erroldatuta egotea (Oinarrizko matrikulari dagokion hobaria izan ezik). Ikasturte amaierako diru-itzulketak jasotzeko, berriz, baldintza hauek bete beharko dira: Bergaran erroldatuta egotea, ikasturtea amaitzea eta % 85eko asistentzia izatea.

M epigrafea: Etxeko laguntza zerbitzua

1.- Esparrua

Arautegi hau etxez etxeko laguntza zerbitzuari aplikatuko zaio, izan zerbitzua zuzeneko kudeaketa erregimenekoa nahiz beste erakunde publiko batzuekiko hitzarmen bidezkoa edo beste erakunde pribatu batzuekiko itun, hitzarmen edo kontratu bidezkoa.

2.- Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

1. Tasa ordaintzera behartuta daude:

- Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren zuzeneko onuradun diren pertsona fisikoak, non eta ez dauden 1. paragrafo honetako b) eta c) ataletan aipatzen diren egoeretan.
- Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak badira, haien gaineko guraso agintea, tutoretza edo zaintza duen/duten pertsona/pertsonak.
- Pertsona helduak, zerbitzura sartzeko arautegian aurreikusitako moduan legezko ordezkari edo izatezko zaintzaile bidez dihardutenean; hala ere, kasu horretan, ordezkaturako pertsonaren errentaren eta ondarearen kontura egingo da ordainketa, eta ordezkaturako pertsonaren ahalmen ekonomikoa hartuko da kontuan.
- Zerbitzuan sartzeko eskaria egin aurreko bost urteetan erabiltzaileak doan egindako ondare eskualdatze baten edo gehiagoren onuradun izan diren pertsonak, baldin eta zerbitzuaren titularrak ezin badio aurre egin legokiokeen tasaren ordainketari, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 57.6 artikuluan adierazitakoari jarraituz.

3.- Tasa

Gehienezko tasa hau aplikatuko zaie erabiltzaileei:

Laneguneko ordua	15 €
Jai egunetako ordua	20 €

4.- Ekarpenen koadroa

Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena:

Erabiltzaileak zerbitzuaren kostuari egin beharreko ekarpena honako ekarpen koadro honen arabera zehaztuko da:

EAEAP sarrerak	Ekarpena
EAEAPren ≤%120	%1,5
>%120-125	%4
>%125-130	%8
>%130-150	%15
>%150-175	%24
>%175-200	%35
>%200-225	%48
>%225-250	%61
>%250-275	%74
>%275-300	%87
EAEAPren >%300	%100

Ekarpen hau egitetik salbuetsita geratuko dira udalaren ekimenez ezarritako prebentziorako zerbitzuen onuradun direnak (adingabeak, zerbitzua arriskuan dauden adingabeak zaintzera bideratuta dagoenenean, pertsonen babesgabetasun arrisku egoerak, zaurgarritasunekoak, gizarte mailako alarma egoerak ekiditera bideratutakoan, ...)

Aipaturiko salbuespenak eskumena duen organoaren baimena izan behar du eta aurrez gizarte-zerbitzuen proposamen teknikoa izan beharko du.

5.-Ondarea zenbatzea

Familia unitateko kideen arabera, gehienezko honako ondare muga hauek ezartzen dira.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, tasaren %100 ordainduko dute.

Kide kopurua	Gehienezko ondarea
1	50.000.-€
2	70.000.-€
3 edo gehiago	85.000.-€

6.- Libreki erabiltzeko zenbatekoa

Libreki erabiltzeko zenbatekoa izango da LAGSren %100ri dagokion zenbatekoa. Baldin eta familia edo bizikidetzaren unitateko kideen kopurua bat baino handiagoa bada, LAGSren %40 gehituko zaio zenbateko horri bigarren kideagatik eta LAGSren %30 gainerako kideetako bakoitzagatik.

7.- Kobrantsa

Zerbitzua hileroko kobratuko da, emandako zerbitzuaren arabera.

Ordenantza arautzailea aldatuko balitz, ordenantza fiskalaren aplikazioan eragina izanik, ordenantza fiskalaren aplikazioz egongo liratekeen aldaketak, interesdunei aldaketa horien jakinarazpena egin eta hurrengo hilean sartuko dira indarrean tasa berriak.

Bestalde, norbaitek ekarpenaren berrikuspen bat egiten badu bere egoera ekonomikoa aldatu delako edo Udalak egiten badu, honela kobratuko da: herritarrak aldaketa eskatzen duenean, eskatu eta hurrengo hilabeteetan sartuko dira indarrean tasa berriak; ekarpenaren aldaketa Udalak egindako berrikuspenaren ondorioz bada, interesatuari aldaketa horien jakinarazpena egin eta hurrengo hilean sartuko da indarrean tasa berria.

8.- Indarrean sartzea

Tasa hauek indarrean sartuko dira iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean eta bere eragina izango dute Bergarako Udaleko etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen araudi berria indarrean sartzen den egun berean.

N epigrafea: Udal lokalaren erabilera

-Zabalotegiko lokalaren alokairuko tarifa: 64,60 € lehen ordua eta 51,75 € hurrengo orduak.

-Irizar jauregiko lokalaren alokairuko tarifa: 64,60 € lehen ordua eta 32,40 € hurrengo orduak.

-Liburutegiko lokalaren alokairuko tarifa: 64,60 € lehen ordua eta 32,40 € hurrengo orduak.

Tasa bakarrik ezarriko zaie herrikoak ez diren edo/eta irabazi asmoa duten elkartei.

O epigrafea: Fraiskozuriko udal frontoiari buruzkoa

1. Pilota partidua ez den beste edozein ekitaldiren ondorengo derrigorrezko garbiketa bakoitzeko:

	€
Beheko aldearena	235,20
Beheko eta goiko aldearena	313,05

2. Udal taulatua, udaleko langileek muntatzea eta kentzea:

	€
a) 7,5 x 6 m-ko taulatua	1.927,35

b) 10 x 8 m-ko taulatua	2.466,10
c) 12 x 8 m-ko taulatua	3.030,00

3. Udal taulatua, norberak muntatzea eta kentzea (udal langile baten presentzia derrigorrezkoa izango da):

	€
a) 7,5 x 6 m-ko taulatua	359,50
b) 10 x 8 m-ko taulatua	411,00
c) 12 x 8 m-ko taulatua	462,15

4. Taulatu pribatua, norberak muntatzea eta kentzea (udal langile baten presentzia derrigorrezkoa izango da):

	€
a) 45 m ² edo gutxiagoko taulatua:	154,25
b) 46 eta 80 m ² arteko taulatua:	205,60
c) 81 m ² edo gehiagoko taulatua:	256,95

5. Moketa jartzea eta jasotzea: 185,15 €

Irabazi asmorik gabeko taldeak tasa honen ordainketatik salbuetsita egongo dira.

P epigrafea: Txakurtegia.

Etxeko animaliak edukitzea arautzen duen ordenantzaren arabera, tasa hauek ezarriko dira:

	€
Animalia jasotzeagatik	17,40
Animalia txakurtegian egoteagatik (eguneko)	4,10
Animaliaren errenuntzia (33-4. artikuluan jasotako kasuan)	172,70

Zerbitzua arautzen duen ordenantzak epigrafe honen izaera osagarria izango du.

R epigrafea: Kamioi grua.

Kamioi grua erabiltzeagatik ondorengo tasak ezartzen dira: 82,85 €/irteerako

Zerbitzua eman beharreko tokia Bergaratik 15 km. baino gehiagora balego, gainera, 0,59 €/kilometroko.

Kasu guztietan udal txoferrak sartutako lanorduen kostua erantsiko da.

S epigrafea: Babes-etxea

Etxea erabiltzeagatik, tasa izango da 17,65 €/eguneko.

Tasa honen gaineko hobari eta salbuespenak babes-etxe zerbitzua arautzen duen erregelamenduan xedatutakoak izango dira.

T epigrafea: Erabilera anitzeko etxebizitzak

Erabilera anitzeko etxebizitzak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa da 27,55 €/eguneko.

Bestalde, zerbitzuaren kostua 36,65 €/eguneko izango da.

U Epigrafea: Desgaituentzako/ezinduentzako aparkaleku erreserba

Lehenengo seinaleztapenaren kostua udalaren kontu izango da. Ondorengo aldaketak, ordea, erreserbaren titularraren kontu izango dira. Seinaleztapenaren aldaketa kostua da 201,70 €

Halata ere, aparkaleku aldaketa derrigorrez egin beharrekoa bada, beti ere mugikortasun eta bizigarritasun irizpideek bultzatutako etxebizitza aldaketa bat bada eta gizarte zerbitzuen aldeko irizpidea badu, seinaleztapen aldaketa ordaintzetik salbuetsita egongo dira erreserba horien titularrak.

V epigrafea: Udaltzaingoaren tasak

-Potentzialki arriskutsuak izan daitezkeen animaliak paseatzeko lizentzia eskuratzea edo berriztea: 55 €

-Atestatu bakoitzagaitik tasa: 91,35 €

W epigrafea: Oposaketetara aurkezteagatik

Lanpostu finkoetarako deialdietarako: 23,00 €

Behin-behineko lanpostu eta lanpoltsa deialdietarako: 11,50 €

Oposatzaileak SMIren azpiko sarrerak izanez gero, tasa honetan %100eko hobaria izango luke, beti ere aurreko urteko PFEZren ziurtagirian oinarrituta.

X epigrafea: ARIN Eguneko arreta zerbitzua

Eguneko arreta zerbitzuagatik egin beharreko ekarpen ekonomikoa ondorengoa da.

A) Ahalmen ekonomikoaren kalkulua:

Errenta balioetsiz kalkulatu da ahalmen ekonomikoa.

Errenta gisa ulertzen da onuradunak edo onuradunek honako bide hauetatik guztira jasotzen dituzten diru sarrera garbiak:

- Lanaren etekinak, barne direla pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak, edozein erregimenetakoak direla ere; aldi baterako edo biziarteko errentak, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.
- Kapital higigarriaren nahiz higiezinaren etekinak.
- Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

Errenta kalkulatzean, ez dira diru sarrera modura hartuko:

- Etxebizitza Prestazio Osagarria, KGPen titularrentzako etxebizitzaren osagarria eta Etxebizitza Legetik erator litezkeen laguntzak.
- Autonomia pertsonala sustatzeari eta menpekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legetik eratorritako prestazio ekonomikoa.
- Seme edo alaba adingabe bat ardurapean edukitzeagatik Gizarte Segurantzako Institutuaren prestazio ekonomikoa.
- Lanbide zentro batean jarduteagatik jasotako haborokin ekonomikoa.

- Aurretiko ohiko etxebizitza batetik alde egin behar izanez gero arkitektura-oztopoengatik edo salbuespenezko arrazoi batengatik (genero indarkeriaren biktima...), etxebizitza haren alokairutik jasotakoa, etxebizitza berria alokatzeko edo erosteko kredituaren gastuei aurre egiteko beharrezko zenbatekoraino (etxebizitza berriaren gastuaren zenbatekoa gainditzen ez duen parte). Zenbateko baten eta bestearen artean gaindikinik balego, diru sarrera gisa hartuko da.

Diru sarrera guztietatik, honako hauek kenduko dira:

1. Ebazpen judizial bidezko banantzeagatiko konpentsazio pentsioen edo/eta gurasoen eta seme-alaben arteko neurriengatikoen ordainketa, halakorik balego; sarrera horiek kanpo uzteko, dagokien justifikazioa aurkeztu beharko da.
2. Zerbitzuen aldibereko erabileragatiko ekarpenak: erabiltzailea aldi berean laguntza edo lanbide izaerako beste gizarte zerbitzu baten onuraduna bada, urteroko bat kenduko da diru sarreretatik, laguntza izaerako beste zerbitzuaren gaineko eskumena duen administrazioaren ebazpen bidez ezarritako ekarpenaren eguneko prezioaren arabera.

B) Ordaindu beharreko ekarpen ekonomikoaren kalkulua

Zerbitzuaren erabiltzaileak hileroko ekarpen bat egingo du zerbitzu horretan parte hartzeagatik, eta ekarpen hori zerbitzua eskuratzeko ebazpenean jasoko da.

Ekarpena kalkulatzeko zerbitzu erabiltzailearen urteko diru-sarrerak kontutan edukiko dira.

Zerbitzu erabiltzailea ezkontuta badago edo ezkontza antzeko harreman egonkor bat badu, bikotearen urteko diru-sarrerak hartuko dira kontutan eta ondoren errenta bi zatitan banatuko da.

Seme-alabak edo beste senitarteko batzuk zerbitzu erabiltzailearekin bizi badira, elkarbizitzako kide direla ulertuko da ekonomikoki mende badaude. Ekonomikoki mende daudela baloratuko da, senitartekoak Lanbide arteko Gutxieneko Diru-sarrera (LGS) baino %75eko diru-sarrera txikiagoak baditu. Kasu honetan, elkarbizitzako kide guztien urteko diru-sarrerak batuko dira eta errenta kide kopurugatik zatituko da.

Ahalmen ekonomikoa erabiltzailearen diru-sarreraren arabera izango da, urteko diru-sarrera garbiak kontuan hartuta:

- Kapital higigarriaren urteko etekin garbia
- Kapital higiezinaren urteko etekin garbia
- Urteko diru-sarrera arrunt garbiak

Programari ekarpen ekonomikoa egiteko lau tarte ezarriko dira, erabiltzailearen gaitasun ekonomiko indibidualaren mailaren arabera:

Ekarpenak honakoak izango dira.

Erabiltzailearen gaitasun ekonomiko indibiduala	Hileko aportazioa
LGS baino gutxiago	5,55 €
LGS eta bi aldiz LGS tartean	11,10 €
2 LGS eta 4 LGS tartean	33,30 €
4 aldiz LGS gorakoak	66,60 €

C) Beste zerbitzu batzuk batera erabiltzea

Erabiltzailea aldi berean Gizarte Zerbitzuetako Zorroaren beste zerbitzuen onuradun ere izanez gero, hark ordaindu beharreko kopurua kalkulatzeko, dagokion zerbitzuari egin beharreko ekarpen osoa kenduko da diru sarreretatik.

D) Beste xehetasun batzuk

- Ekarpinak ez du zerikusirik izango pertsona hileko saio guztietara edo batzuetara joatearekin, ez eta zerbitzua hilabete horretan aktibo dagoen egunekin ere.
- Ekarpina urtean 11 hilabetez egingo da (abuztuan izan ezik). Zerbitzua abuztuan eskaintzen bada, dagokion ekarpina ere egingo da.
- Behin zerbitzuan alta emanda, bakoitzak egin beharreko ekarpina bere osotasunean ordaindu beharko da nahiz eta hilabete osoan ez erabili zerbitzua.
- Hilabetea hasita zerbitzuan baja emanez gero, erabiltzaileak hala eskatuta zein dagokion aginte arduradunak horrela erabakita, hilabeteari dagokion ekarpen osoa kobratuko da.

C, D epigrafeko f atala, F eta G epigrafeendako oharra: Eskaera egiteko orduan Udalak autolikidazio erregimenean ordainaraziko du tasa hau. Hala-ta ere, C epigrafeko d atalekoak, F epigrafeko lur banaketak eta G eta F epigrafetako tasetan, adierazpen erantzulea edo aurre komunikazioa aurkezten duten kasuetan, ez da autolikidazio sistema jarraituko.

Honako hauek dira funtzionamendurako arauak:

-Autolikidazioa egiteko epea: eskaera aurkezten denetik zenbatuta, 10 eguneko gehienezko epea izango da.

-Aurreko idatzian xedatutakoa bete ezean, azaroaren 26ko 30/1992ko Legearen 42.1. artikulua dionari jarraituaz, eskatzaileak bere eskaerari uko egin diola ulertuko da, eta bestelako tramitaziorik gabe artxibatu egingo da.

-Autolikidazioa egiteko, udal-bulegoetan horretarako prestatuta dagoen inprimakia bete, eta kasu bakoitzean behar den dokumentazioa (aurrekontua, fakturak, etab.) aurkeztu beharko da.

-Obra tasa gehi eraikuntza zerga 6.000 €tik gorakoa denean, zerga autolikidazio erregimenean eskatuko da baina zergadunak ordainketaren atzerapena edo zatiketa eskatu ahal izango du, beti ere, dagokion interesa ere ordainduz, autolikidazioa egin behar zen momentutik sortutakoa.

ALKATEA

IDAZKARIA

KONTUHARTZAILEA